

MIREN ITZIAR'I IDAZKIAK

TENE

MIREN ITZIAR'I IDAZKIAK

ETA

OLERKIAK



ZORNÓTZA 'N
JAUNGOIKO-ZALE'REN IRARKOLAN
1923

OPALITZA

Zuri, Itziaŕ'ko Ama Neskutza maite

oŕi opaltzen dizut, nere lenbiziko idaz-

ki au. Aŕ-zazu maitez, eta onetsi, euz-

keldun emakume artean, Jel - alde

emaitz edeŕak bildu ditzan.

Egilea

Euskeldun emakumeai eta irakurle orori

Ara emen idazti baten bilduta, «Miren Itziaf»i zuzendu nizkan Jel-aldezko idazkiak, baita nere olerki txir-oak ere, «Aberia» eta «Zargaste» euzkel-idazle argi eta abertzale sutsuen asmoari erantzunaz, zuen, ainbeste abertzale zindoan laguntasunari eskerak.

Lenago ere ezagutzen dituzue; eta ez bertan bilatzen ibili elertiaren bikaintasunik, ezta jakintza sakon baten irakatsirik, ezta ere gogo-epantsuen goyargirik; ezer ofelakorik ez dezute arkituko-ta.

Bakar - bakarik bilakatu Aberia maite-maite duan biotz baten naimen ona; bertan arkituko dezuten guzia onexek arazia da-ta.

Tene



ETIQUETA

I IDAZKIA



TZIARTXO nere maitea: Iñoiz Euzkadi gure aberiaren zoritxara, gure izkeltaldietan aipatzean, Jel-aldez alegintzen ekiteko daukazun bildura

agertu izan didazu; alegia, «politika» emakumioi dagokiguna ez dala-ta.

Zoritxarez, euzkotar emakume asko daude, zu bezela, bildur bidegabe onek jota; eta emendik aberiari datoŕkion kaltea ikusirik, zeuri idazki abek zuzentzea erabaki det; ia abekin lortzen detan, zu, eta zu bezelako kezkatiaŕk aberiarentzat irabaztea.

«Politika» emakumientzat ez dala; onetan oso-osoan zeurekin nago; nik ere ez det ondo arkitzen «politika» edo eriketa emakumientzat; batetik, izanik «politika» ustearen ondorea, eta ustea (gai onetan beintzat) eri-zaintzazko jakintzaren ondorea, arazo au emakumioi ez dagokigu, gizasemeai bezin ondo; abek bezin adimen argidunak, edo beintzat agitz ain ikasiak ez geraldako; eta bestetik, senditik kanporako

ardura abek, emakumea, bere gisako bearkun ingurutik aldentzen dutelako; eta au, sendiyarentzat kaltegarri izanik, gizartearen galbide litzakelako.

Baña abertzaletasunak, Miren Itziar, ez du «politika»kin zer ikusirik. Au uste baten ondorea dan bezela, abertzaletasuna biozkada baten ondorea da, maitasun bat da; eta alde onfatik, iya-iy a ausartuko nintzake esatera gizasemeai baño ebeto dagokigula abertzaletasuna emakumiai; adimen argiya ayen ogasuna ba-da, maitasuna gurea dalako, emakumiena dalako.

Gañera, ¿ez dezu igarri, gaur euzkotar emakume geyen - geyenak, berenez, eta berenkiko gauzetan agertzen duten espaintzaletasuna? Eta entzun al dezu iñoiz, emakumeari emakume dalako berezko agerkun ori ez dagokionik? Ez orixe! Ez ba: notiñok geure izakeran agertzeko, era bat edo beste, bear-beareko degu-ta.

Eta espaintzaleari espaintzale agertzeko eskubidea ezin ukatu ba'leikio ¿nola ukatu leikigu euzkozalei euzkozale agertzeko geure eskubidea? Au eguna bezin argi dakust nik; eta ori, bakoitzaren eskubideai bakañik elduta; eta euzkotarok euzkotar agertzeko daukagun bearkuna alde batera utzita; naiz ta, notiñarentzat, bete bear duan bearkuna, artu edo utzi lezaken eskubidea baño lenagoko izan.

Orain zuk galde dezakedazu, maitasunaren izena demayodan abertzaletasuna emakumeoi dagokigun edo ez; ba ez da asko, maitasuna emakumien ogasuna dala esatea, zenbait maitasun dagokigula bayezteko.

Ara: Jaungoikoak, gizasemientzat bezela emakumientzat ere, oroentzat, Lege bat jarri zuan; orok Lege bat gorde bear degu; orok agindu berdiñak ditugu; beraz, gizasemeai laketzen zayena, emakumeai laketzen zaigu, ayei eragozten zayena, geuri eragozten zaigu; ayeke maite lezaketena guk ere maite deza-kegu.

Orain, maitasun oren agerkuna da, berdin ez dagokiguna. Jaungoikoak gizaseme naiz emakumeai Lege bat berdiña eman zigun aŕen, ez giñuzan biyok izakera berdindunak egin; augatik, bizitz ontan, gure bear kunak ez dira berdiñak, ezin gindezke gure iza-keran berdin agertu, Jaunaren Lege ori ausi gabe, edo beintzat austeko zoriyan jarri gabe.

Oŕengatik «politika» emakumientzat ez darkigu ondo; beronen arazoak gure bear kun ingurutik alden-tzen gaituztelako; baña ez oŕela abertzaletasunak; ba, maitasun bat danez, geure bear kunak beteaz maita-sun au agertu dezakegu eta agerkun onekin gure aberri gaxuari on aundiya egin. Eta auxe besterik ez da es-katzen zaiguna.

Ez dakit onenbestekin adipetuko zaitudan; nola nai, Miren Itziar, urangoan jarraituko det, gai onetzaz zerbait geyago esaten. Bitartean, zurea Jel-aldez.

Tene.

II IDAZKIA



NE Itziartxo: Emakumeak, ez bakañik abertzale izan eta agertu giñake: oñetara beartuak gaude; il-zorriyan dagon Ama gaxoari bere laguntasuna ukatzen dion alaba gaiztoak bezela, geron buruak gaiztetsi-gaři egin nai ezpadiugu.

Gure Ama gaxoa, gure Aberi gaxoa il-zorian dago; eta ala dago, geuk bere umeok, bere seme-alabok arduragetu izan degulako. Bitzuek gera erudun: gizasemeak bai, baña emakumeak ere bai; bitzuek elkarren lankide izan gera bere zoritxara egiten, beraz bidezkoa da elkarekin lankidetzea bere zoriona egiten; gizasemeak gizaseme bezela, emakumeak emakume bezela, zegati done bat aldezkutzen duanaren su, kemen eta sendotasunakin alegindu ere.

Eta diot zegati done bat aldezkutzen duanaren kemen eta sendotasunakin alegindu bear gerala, gure zegatia, euzkotaren zegatia, done-donia dalako; ba Arana-Goiri'tar Sabin zanaren ikuñitz eder onek tinkatzen nau: «Gu Aberiarentzat eta Aberia Jaungoikoarentzat».

Jaungoikoa'gatik eta Jaungoikoa'rentzat nai izan bear degu gure Aberia; Jaungoikoa gabe onik ez dalako; Bera gabe zorionik ez dalako; eta gauza guziakin Beretzat egin giñuzenez, gauza guziakin Bera'gana zuzendu bear geralako.

Eta ikuritz done au ezagututa ¿izango ote-da atzera egingo duan euzkotar emakumerik? Ez al nunbait.....

Abertzale azalduta, zenbaiten oniritsia lortu gabe beren buruak aotan jariko ote-dituzten, edo esamesanak izango ote diran edo, zenbait bildur izaten dira, eta zu ere bai noski, Itziartxo; baña ez aitzu Josu Kistogure Jauna, osotasuna bera izanik, deuntasuna bera izanik, ludi ontan maxiatua izan zala; beraz gu obendiyok biritan izango generala.

Norbaitzuk joi! ikaratuko dira, ori bai; eta maxiatuko gaituzte, gizaseme lanetan ari generala-ta. Aditu, Miren Itziar: lñoiz onelako emakume *bildurtiren bat* aurkezten ba'zaizu, begi-zayozu ondo burutik oñetara; begi zayozu biotzera; oldoztu bere egñenak, eta laister igariko dezu *gizaseme-lanak* ainbeste bildurtzen duten emakume ori, gogaizto-lanak, deabruaren lanak batere ez dutela bildurtzen. Au diot, gaurko emakumeok agitz, esaerak dion bezela, «zaietan zintzo, eta iriñetan ero» gabiltzalako. Ardura aundiya gizartean ondo azaltzeko; baterez Jaungoikoari atsegin izateko. Gizonenkikoa nai, ta ez Jaungoikoakikoa; soña ta ez gōgoa. Auxe da agitz dagiguna; ta ez da batere aritzeko izango, gaiztoki-usaindun dantzalekuetan, soñu zirtzil bat aitzaki dala, gizasemeaz lotuta ibiltzen bildurtzen ez dan neskaxa, Jel-usai garbidun tokietan beste emakumeaz biltzen bildurtzea; bere jantzi eta nabarmenkeriaz lizunkerik eta likizkeria ereiten ikaratzen ez dan anderatxo «ondo mendua», Jel-azi osasungarria ereiten ikaratzia; lagun-arte, auzo eta abar, gezuña, naspila eta kalderkeria ixurtzen ordu osoak noiz-nai botatzen ditun «etxekoandre zin-

tzoak», Jel-aldez eman bear duan ordu laurdenari alperkeria iriztia; bere burua apaindu eta edertzen eta aundi-usaitzen txinditzak ematen ditun andera aundikiak, eta aundiki ez danak, Jel'i eman bear zayon txindi apurtxuari ondaketa iriztia; eta al guziyan bere espainzaletasuna agertu eta zabaltzen alegintzen dan elizkoi benak, euzkozaleak beren zaletasuna agertu eta zabaltzea obentzat edukitzea; eta abar.

Eta onelako «bildurti» eta bestelako arerioen esamesan eta jardunei begira gelditzen ba'gera, onurakor dan ezer asko ez degu iñoiz egingo; eta Goikoagan gure ustea ipiñirik, alegindu gaitezen sendo; eta Josu'ren Nekaldiko emakume done ayek beren Irakasliaren aldez bildur gabe azaldu ziran bezela, azaldu gaitazan gu ere Josu gure Jabiarentzat nai degun Aberi-aldez.

Au nola egingo degun jaraituko degu J. I. Bitartean Jel-aldez.

Tene.

III IDAZKIA



DIZKIDE maite oñi, agur. Aberi-aldez nola ta zertan alegindu bear geran azaltzen asitzeakoan, Jaun-maitasunatzazko Deun Agustin'en esari bat datorkit burura. Beronek dio: «Maita zazu Jaungoikoa, eta egin nai dezuna», maitasun onen ondorea, Jaungoikoaren aintza nai izatea eta aintza berearen aurka dagon obena gorotatzea danez, maitasun au duanaren egiñenetan okerrik ezin leikelako, ba obena naimenean dagoanez, obenerako naimena izan ezkeru, maitasunik ez dalako; eta, edo maite degu Jaungoikoa, eta maitasun onek erazten dizkigun gure egiñenak onak dira; edo ta gure egiñenak gaiztoak ba'dira, maitasunik ez degulako da.

Berdin esan lezakegu aberiatzaz ere. «Maita zazu aberia eta egin nai dezuna», maitasun onen ondorea, aberiaren ona nai izatea danez, naimen onak gure egiñenak beregana zuzenduko ditulako; eta egiten deguna egiten degula, beti aberiaren ona bilatuko degulako. Aitzen da, benetako maitasuna izan ezkeru, egiazko maitasuna izan ezkeru; ba egiazko maitasunatzaz, Jaungoikoagan asitzen dan ura aitzen degu.

Orengatik ba, Deun Agustin'en esari oñekin guzia esana dago; eta aberia aldeztan irakasteko bein da beriz itz auxe dasagu: Maitatu, maitatu, maitatu.

Alaz guziyaz gai onetzaz jardutia, ez da alperikakoa izango; ba maitasunak arazita aberi-aldez lezakeguzan egiñenak azalduta, gureak oyekin ondo dijoazen, edo bat diran ikusirik, igariko degu gure maitasuna biotzetikakoa edo ao utsezkoa dan; eta alegin-duko gera biotzetikakoa izan dedintzat; au da: egiazkoa izan dedintzat.

Eta Arana Goiri'tar Sabin'en irakatsiai jaraiturik, beronek aberi-aldez eman zigun ikuñitz «Jaungoikoa eta Lege Zaria»-ren lenengo atalatzaz zerbait esan nai dizut, au da «Jaungoikoa»tzaz.

Lenen-lenengo, Miren Itziar, Jaungoikoa gure aberian nai ba'degu, gure aberia Jaungoikoarentzat nai ba'degu, gu bakoitza izan bear gera Jaungoiko orenak, sinismenez eta egiñenez. Sinismenez; guzia Beragan uste izanaz; eta guzia Beragandik itxaroaz; eta uste eta itxaropen au, gure aberi-zorionezaren oñaritzat ipiñiaz. Egiñenez: gure uste ta itxaropena ditugun Jaungoiko orentzat gure aberia nai izanaz; eta au lortzera gure alegiñak ipiñiaz.

Eta ustea eta itxaropena Bera'gan ditugunez, asi bear gera, Miren Itziar, arako bear-izan bat degunean, edo geuk asko maite degun senide edo adizkide edo orelako norbait gaxorik, naiz beste zerbait gatik bearean arkitzen danean, geure, edo lagun-urko oren aldez, kistar onak bezela eta sinismendunak bezela, Jaungoikoagana nola zuzentzen geran; ala baita aberiaren zoritxar eta biar-izan aundi ontan Bera'gana zuzendu bear gera, otoi egiñaz; ba on guziaren asitza eta iturria Jaungoikoa danez, bakoitzari bezela, aberiari ere Goitik bakañik letorkio maitasunez opa dio-

gun ona. ¿Ze egiñenek daike, Alguzidunari apal da-
giogun otoitzak duan indaŕa? Zertatik itxaron gen-
tzakegu, «Eskatu eta emango zaizute, artuko dezu-
te» abindu duan Jaungoiko altsu oréngandik ezpa'da?

Augatik gure aberi-aldez donokira zuzendu bear
gera otoi egiñaz; gogoan degula geure egunoroko
eskarietan, jaupa entzuten degunean, Jaunartzean,
beti eskatu bear degu bere aldez; eta baita geuretzat,
onetan alegintzeko bear degun indaŕa eta eskar
bereziak.

Baña ez uste izan, geuretzat, emakumientzat ari
naizelako, Itziartxo, otoi egitea emakumien lan berezi-
tzat daukadalako dala, ez. Otoi egitea emakumiena
bezela gizasemeena ere da; abetako askok besterik
uste ba'dute ere; eta oréngatik gure egiñen au oréla-
koen ikasbide izan bear du baita, beste orénbeste egin
dezaten; eta guzion artean iritxiko degu gure Euzkadi
gaxo onentzako gaur ain bearean duan zoriona; zori-
onaren asiera Goikoa da-ta.

Gaurkoz, agur; eta Jel-aldez zure adizkide

Tene.

IV IDAZKIA



NE Miren Itziar: Lengokoan esaten nizun, gure aberiaren zoriona nai bai degu, beste geuretako gauza baten bear geranean otoi egiñaz Jaungoikoari eskatzen diogun bezela, aberi-aldez ere Bera'gana zuzendu bear gerala; apal eta maitari egiten zāyon eskaria entzungo duala abindurik dauka-ta.

Baña on ori Jaungoikoari eskatu, eta gure aldetik dagokigun alegiñik egin gabe ez gera gelditu bear; ta bai Berari apal laguntasuna eskatu, eta al'guzia geure aldetik egin.

Ludiko aberi bakoitzaren zorion eta zoritxara, gertaketak arazi, ta gizarteak dagi; Jaungoikoak artezen ditun elpuruen kai da gizona; orengatik ba, gure aberiarentzat nai degun elpuru zoriontsu ori geure bidez eman bear zaigunez, geure gain almena daukan Jauna'ri dagiyogun otoyaz gañera, beareko zaigu Bera'gan ustea ipiñi eta laguntasuna eskaturik, nai degun ori lortzera gure egiñenak zuzentzea; gogoan eukiyaz gizon bakoitzaren zorionak bezela, efi osoarenak ere Lege Jainkotian bear duala oñaria. Eta luditar ziyo guztien gain Lege ori gordetzera beartuak gauden arēn, kistar zindo artean, Goiko gabe onik ez dala dakigunen artean, aberiaganako maitasunak berezkoa du gorde arazitzea; aitzen ematen digulako

gure egiñen on edo gaiztoak dijoazkiola zuzen-zuzen beregana; aldez, edo kaltez. Sabin'en aberiaganako maitasun egiazkoak onela aitu zuan; eta onela irakatsi zigun aberiaren ona bilatzen, berau Jaungoikoagana zuzenduaz.

Jakiña dago, gure elburua Jaungoikoa danez, gure Egileak beretzat egin giñuzenez, aberia izan edo izan ez, gu Jaungoikoari zor gera; bakoitza gure elburu oretara zuzentzen alegindu bear gera; auxe da bizitz ontan gure egiteko bakara-ta. Beste gauza guztiak, berenez, edo ez dira ezertako edo kaltegarri dira, baldin Jaungoikoagana eramango gaitun zuzenbidetzat artzen ez'baditugu. Onela, ba, baita aberiaganako bere maitasuna Arana Goiri'k Jaungoikoagana zuzendu zuan, gizona, ditun gauza guztiakin bere Egile dan Jaungoiko ori zordun dala aitu zualako; eta siniste onetan argiturik, aberiaganako gure maitasunarentzat ziyo au utzi zigun: «Gu Euzkadi'rentzat eta Euzkadi Jaungoikoa'rentzat».

Eta Euzkadi Jaungoikoarentzat izan dedin, gu Euzkadirentzat izan bear, Jaungoikoarenak izanez; ba gu gera, guk dagigun euzko-gogo da Sabin'ek Jaungoikoarentzat nai izan zuan «Euzkadi»ori.

Eta euzko-gogo ori, Itziartxo, gizasemeak bezela emakumiok dagigunez, aek bezela gaude beartuak Jaungoikoarentzat izan dedin alegintzera. Eta au lortuko degu bakoitza beregandik asita; norbere bizi-kerako egiñenak Jaungoikoaren Lege'peratuaz; ba jakiña dago, orok batez lortu nai deguna bakoitzaren-gandik iritxi bear degula: eta au da baita gogoan edukitzea dagokiguna.

Onetarako beriz ez degu ezer berezirik, ezer oiezdakorik egin beařik; bakar-bakařik gure bizikerako egin-beařak zintzo bete; Jaungoikoarenak izan; norbere egiñenak lenen begiratu; norbereak iñorenak bañño lenago aztertuz; norbereak iñorenak bañño lenago zuzenduaz.

Eta gizasemeetzaz ari ez geranez, abek alde batera utzita; ¿ez dezu igartzen, Itziartxo, aberiari etoři leikion ona, Jaungoikoaganako gure bearkunak emakumiok bear bezela beteko ba'genduz? Emakumiok Agindu Deunak betetzen jakin izan ba'gendu, gure Euzkadi maitean ainbat oitura gaiztok etzuan artu duan indařik artu izango; etzuan gure aberiak ainbat gaiztakeriren kaltea soñian eramango; etzuan ainbat likizkeriren kirats zikiñak orain dagon gal-zoriyan ipiñiko.

Nik iruditzen det emakume oso onointmentsuak giñaken Euzkadi zoriontsu bat. ¡Ze donokia! Esan neike, iya-iya besterik ez gendukela bear. Zenbat oitura gaizto geyagoko gabe zapalduak; zenbat oitura on, iya il ziranak, berbiztuak; zenbat gaiztakeriren iturburuak galdu, eta berayetatik onbide dagitenak sortu! Ze sendi-eraltze bear bezelakoa, eta ořetatik ze azi ontsua aberiaren zorion. Itz baten: emakumeoi dago-kigunagatik, ludi onetan geure gain damagun bearkun goitia gogoan degula, emakumea, sendian, gizaldien eraltzalia dala gogoan degula, aberia erabiliko duan burdiñaga geugan dakusgu; eta geure eragin au onerako izan dedin, onak izaten alegindu bear gera; eta onak izaten jakiteko on ori ezagutzen, on ori ikasten baita alegindu bear gera. Onbidea, jakin-

tzaren bidea da; baña onbide onen ezaguera ikastetik dator; ezin ezagutu berau, ikasi gabe, ezin maitetu ezagutu gabe. Eta gaur eguneko ainbat jakintza gaizto, adimen-iluntzale diran oyetatik geure burua gaizkatzeko, Egiya ikasten, Egiya ezagutzen alegindu bear gera; ondorenez geure bearkunak betetzen jakin al-izateko.

Baña onetzaz urangoan jaraituko det. Agur ba, Itziartxo.

Tene.

V IDAZKIA



TZIARTXO maite ori, agur: Aurerago-koan esaten nizuna zan, gaur eguneko ainbat jakintza gaiztoren kaltefik geure buruak gaizkatzeko Egiya ikasten eta ezagutzen alegindu bear gerala; ondorenez geure bear kunak betetzen jakin al-izateko. Egiya beriz, gure Uzkurtz deunean dago; eta onen jakintzan arkituko degu.

Zoritxarez emakume euzkelduna, batez ere euzkeldun utsa dana, berez ain sinismendun eta uzkurtzalea dalarik, berez ain mendu eta oitura onduna dalarik, uzkurtz-gayetan ez da bera izan bear luken bezin jakinā; eta aukatik, bere bear kunak betetzen ere, ez da bera izan diteken bezin osoa. Onen erua ez da baña berea guztiz.

Emakume euzkeldunak aurtzaroa utzitzen duan garayan, Kistar-ikastiko idaztitxoa ikasten amaitzen duan garayan, amaitzen du baita uzkurtzazko bere ikastaroa; ikastaro ori zindo eta sakonen asi bear duan garayan amaitu egiten du; ikaste ori bearen duan garayan utzi egiten du; edo obeto esateko, utzi egin bear izaten du, beretzat jarai-biderik ez dualako, bere izkuntzaz jakintza ori nork eta zerk eman ez dualako; eta gaxua arixku eta amildegia baño ez duan bizi-bidean itxu-itxuan sartzen da; bide oretan bear bezela ibiltze-

ko gai - gaya dan euzkeldun emakume ori, bear duan jakintza ez dualako, nařaxka, erorteko zoriyan dijoa; eta zutik irauten ba'du ere, aurretikoengandik artu ditun Jaun-sinismen eta ekandu onetan euskai sendo bat arkitu izan dualako da.

Baña bizitz ontan, erori gabe gauzkan euskaia bear-bearekoa ba'degu ere, euskai ori ez da zuzenduko gaitun argia, ez da argituko gaitun jakintza; eta argi ori gabe, jakintza ori gabe, ezin zuzen ibili; edo beintzat, ez ibiliko giñaken bezin zuzen eta ondo; eta auxe da emakume euzkeldunak, Jainkoak ain gaitasun bereziak eman dizkan emakume euzkeldunak duan utsa.

Aurtzaroa utzi, eta beretzat beřia dan garayan, edonundik galbiderako deya baño ez duan garayan, ez du gaxoak beste abendatako emakume gasteak oi dituzten laguntasunik; ez du, bere izkuntzaz eta berari dagokion era bereziz biotza eraltzen, eta ez gogoa zuzentzen lagunduko dion ez irakasle ez idazti uzkurtzalerik; ez du aitortegian ardura bereziz bere gogozuzentza-lana artuko dion apaiz edo jauparirik; euzkotar jaupariak erderaz ikasiak diranez, gogo-zaintzako lan berezi sakonak euzkeraz erabilten ez dakitelako. Baldan bederik erderaz zerbait ikasten ba'du ere, gutxitan da jaupariak erderaz ematen dizkan irakatsiak aitzeko aña, ezta uzkurtz-idazti mamintsuetatik bear dan onura ateratzeko aña; eta bai gure soin makur onek txařerako duan eřestasunakin, bere eskuetara eltzen diran ainbat eta ainbat ipuin eta ingi nabarmen eta eroren irakatsi kaltegarřiak artzeko aña; ořela, ořa nun gaxoa, itxu baita gañera arerioz ingura-

tua; Jaungoikoaren eruki berezi bategatik dabilera dabilen ainbatian.

Gai onek gogo-zaiñentzat zer oldoztua eskeintzen du; baña ez da au nere idazki aben ziyoa, eta aipamen au dagitzut, zeuri au bera jazo litzakezulako; eta onela, gertatzen zaitzunaz konturatu; eta zeugan dezun kalte au ongitzen alegindu zaitezana; dagokizuna zeure aldetik ipiñiaz, oretarako beareko dituzun gai eta bideak bilatzen; ba gaur emakumeok, gure bearkunak bete al-izateko antziñako gure amona ayek baño jakiñagoak izan bearean arkitzen gera, ayek etziuzten galbide asko ditugulako. Eta egiaz ayek baño jakiñago gera baita, baña soñari dagokion gauzetan. Ardura aundiya degu, gaurko bizitz-erespenak agintzen duten malan gizartean azaltzeko jakintza eukitzen, asmo txit luditaréz; ze kistar-ontasunari dagokiozan gauzetan, len aipatu dizudan ziyoagatik, eta geure arduragabekeriagatik baita, gure amona ayen aldean betxotan gaude; eta au, beriz diot, ayek baño jakiñagoak izan bearean arkitzen gerala.

Ala, ez naiz ni onbidea irakatsi nezakena; ez dira idazki txiro abek onetzaz jarduteko gai-gayak; irakasleak eta irakas-gayak ditu onbideak berezi-bereziak; eta beronen ezaguera oyetatik artuko dezu; baña alaz guziyaz, nere lanari jaraitzeko, aberiari dagokionatzaz zerbait esan bear dizut.

Urangoan baña, au luzetxo dijoa-ta. Jel alde zurea.

Tene.

VI IDAZKIA



NE maite: Emakume berekoi, gaizto, edo likits galduak, agitz, amatasuna gaitzetsi oi duan bezela; emakume on, biotz garbiak baita ama izateko naimen'bizia nabaitu oi du; amatasunaren zale da; eta zaletasun au, onaren biotzian izaten danez, ezaupide auxe degu asko, Jaungoikoa'gandik datořen zaletasuna dala igartzeko, eta bizitz ontan geurekiko egin beara sendia eraltzea dala igartzeko, Itziartxo.

Augatik, eta emakumeak eraltzen duan sendi ori, eriak eta eridiak dagizkin gizartea danez, aberia erabiliko duan burdi-aga geugan dakusgu geyen bat; eta geure eragin au onerako izan dedin, euzkotar emakumeak gogoan eduki bea degu, gizartean geurez degun alkuntza ori, eta geure Jaungoiko eta aberi-aldez ipintzen zintzo alegindu.

Zein da, zeure zorionez Jainkoak bere Eskon izateko ludi au utzitzera deitzen ezpa'zaitu, edo ta zioeren bategatik eskonge gelditzeko asmotan ezpa'zara beintzat; zeure amesa iñola ere, senar zintzo baten laguntzan sendi bat eraltzea izango da, noski, Iziartxo.

Au onela ba-da, Jainkoa'rentzat nai dezun aberi ofek, zure sendia Jainkoa'rentzat eraldu deizula, ezkatzen dizula, ez aitzu; eta au egin al-izan daizun, ondo gertu zaite. Lenengo, emaztearen bearkunak

ondo ikasiyaz, zertara bearitzen zaitun jakitzera ondo aleginduaz, ba inork ezin ditekez bete ezagutzen ez ditun bere bearzunak, gutxiago emazte zintzo eta ama ona izateari dagozkion bearzun aundiyak. Eta baldin oyek ezagutzean, betetzeko naimen zuzenik zeugan nabaitzen ezpa-dezu, utzi, utzi eskontza Jainko arent! ba zenbait emakumek, emazte eta ama onak ez tirala-ko, beren aberiari dagioten kaltea edesteko, idazti bat osoa bear genuke.

Ez da adimen argi berezi baten bearrik aipe detan gaitz au igertzeko; asko da zertxobait oldoztea, begi arean degun au argiro ikusteko. Zenbait dijoa eskontzara, eskontzen dan une berean atsedan aundi bat aritzeko pozean; eskonduaz bere gañetik zama aundi bat kentzeko asmotan; eskonge, neskarar gelditzeak bildurtzen dituz, bere ustetan nardagari dan bizikera ortatik irtetearen. Beste zenbait beriz, bere maitasun edo zale bat asebetetzearen, beste nai-izate aratzago bat gabe. Ez dakite eskontzeakin bearzun berri aundi-aundiak beren gain artu dituztenik; ez dakite eskontzak Jaungoikoa'kiko eta Aberiakiko bearzun berriak ezartzen dizkienik. Ez dakite oso arin bairzik umetxuak Jaungoikoa'rentzat azi bear dituztenik, eta gutxiago Jaungoiko orrentzat nola azi bear dituztenik eta azkenez ez dakite ere ume oyek Jaunarentzat aziyaz, aberiaren baratzan gizaldi on, berri baten landara edera ipini bear dutenik; eta baldin ba-dakite ere, ez dituzte nai beren bizibideko bearzun oyek bete; eta gorago desakizudan bezela, onekin aberiari dagioten kaltea ezin esan anakoa da; ba emaztea bear bezelakoa ez izatetik etori oi da askotan zenbait senaren

okerbidea; eta onekin heronen gaiztakeriz bere buru, sendi ta aberiari ezartzen dien kaltea. Baita ama ona ez izatetik etorri oi da ume askoren gaiztakeri eta txar-erako zalekeria, eta onekin gastedi makur - galdua aberiaren zoritxar-gai. Eta au guzia andreak berak berekiko artu leiken okerbidea alde bat utzi, eta orëkin ezartzen duan kaltea aipatu gabe. Beraz berari dago-kion ain batean on izan arën, bere bizibideko egin bearak ez betetzetik bertatik dagi kalterik asko.

Onela ba, Itziartxo, baldin len esan dizudan bezela, eskontzean, orëtaz artuko dituzun bearakunak betetze-ko naimen zuzenik zeugan nabaitzen ezpa-dezu, ez eskondu; onenean beste bizibide baten or ezin leike-zun ona leikezu-ta.

Ostera, naimen zuzen ori ba'dezu, eskondu; eta ez bildurtu bearakun ain aundien zameaz; ba asmo onakin ba'zuaz, eta Jaungoikoagan zure ustea ipiñi, Berak emango dizu zure bearakun oyek betetzeko bear dezun laguntasuna; eta onekin zeutzat irabazkin aundiak lortuaz gañera, aberiari on aundi-aundia egingo diozu, sendi Jaungoiko-zale, ekandontsu baten oparia, bere zorionerako egiñez.

Agur ba, Iziartxo, eta urëngo arte.

Tene.

VII IDAZKIA



NE Miren Itziar: Lenagokoan esaten nizun, gizartean emakumeak berekiko egin beara sendia eraltzea duanez, berak dagian eraltze

au dijoakiola aberiari aldez edo kaltez; eta aldez dijoakiontzat, eskontzako bizi-bidea, bear dan gerkun eta jakintzaz artu bear zuala.

Ala baña, gerkun onetzaz gañera, bere egin bear oyek, bearkun oyek, dagokion onuz bete al'izateko, norekin batzen dan, norekin eskontzera dijoan ondo begiratu bear du; ba senar on bat izatetik ez izatera, bere zorionaz gañera, dituan bearkunok bete al'izatea edo ez, dijoakio. Beintzat bear dan onuz.

Antziñako neskata, eskontzean, kistar on-ona zan senar baten babespean jartzen zan agiltz; eta beronen zindotasunean zuan emazteak bere onoimenen euskai bat, eta bearkunetan zuzentzale bat. Gaurko neskata baña, eskontzean, geyen-geyenean jartzen da gaurko gizarte galdu onekiko artu - emanetan bere Jaun-zinismena iya galdu, edo beintzat otzitua duan baten babespean; eta senararen zinismenik - ez ori, beti da emazte aularen onoimenaren arixku bat; eta askotan oni Jaungoikuakiko bearkunak sendiyan bete al'izateko aurka jartzen zayon eragozpen bat. Alperik onelakoan emaztea berez Jaungoiko-zale eta onoi-

mentsua, uzkuñtzako egipen jakintzak ematen duan artez eta sendotasunik ezpa'du, senaragan ikusten du beregan arkitzen ez duan jakintza, eta ontzat arturik, itxu-itxuan berari jaraitzen dio; eta onen luditar jakintza eroakin bat-egiñik, Jaungoikoarentzat oso-osoan eraldu bear zuan sendia, ludyarentzat eraltzen du; eraltze kaltegarri onen ondorenez, gizarteari eta onekin aberiari kalte aundi bat ezariaz. Eta naiz uz-kurtz egiyetan jakina izan, eta jakintza onek ematen duan artez eta sendotasuna eduki, senararen izakera beti du eragozpen bat, bere bear-kunak bear dan onuz bete al'izateko.

Eta zer esango degu alako eskontzean, senartzat, ziñesge gizatzar bat gertatu zayonak, lezakeala? Ba on ustez, onelakoak ere gertatu oi dira; ¿ze onbide sendo, eta ze artezia bearreko ez ditu, onelakoa gertatu zayon gaxoak bere bear-kunetan zutik ibili al'izateko!

¡Eta oldoztea ere gaurko euzkotar emakume asko la askoren itxaropena onelako gizonagan dagoela; eta emakume oyetan euzkaldun utsak, lenagoko idazki baten esaten nizan bezela, bearreko duan gertasunik ez duala!.. ¡Ene aberi gaxuat!

Orengatik ba, Itziartxo, eskontzerakoan ondo begitu norekin zuazen eskontzera, nor zuazen senartzat artzera; eta baldin on ustean, bear bezelakoa ez dan bat gertatzen ba-zaizu, aundiya izango da zure nekea, baña ez aitzu zure bear-kunak, eskatu Jaungoikoari laguntasuna, eta Bera lagun dalarik ¿zer ez lezakegu?

Orduan alegindu baita senara bera, onbidera ekartzen; poliki-poliki, artezi aundiyaz, eta Jaungoikoagan

ustea ipiñiyaz; zeure onoimenak ikasbide ipiñiaz; ba asko eta askotan emaztearen onbidea izan oi da senararen gaiztakeri eta zalekeri kaltegarrien sendakai; eta onela ez bakarrik berari on aundi bat, eta zeure zoriona egingo dituzu, baita orielako gizonak beren gaiztakeri eta griña txaraz aberiari dagioten kalte aundi bat eragotzi ere bai; ba era guzietan Jaungoikoaren aintza bilatuaz gañera, auxe da egin bear deguna.

Baña, Jaungoikoari eskefak, bai dira oraindik Euzkadi'n gizaseme zindo Jainko-zale on-onak; eta al'ba-dezu beintzat, egokitzen ba'zaizu beintzat, onelakoa nayago-izan bear dezu. Zenbaitek onetan uskeri pare-gariak izan oi ditu laketegi; ziyo guztiz ikugayak zaleizen dute; eta ortik agitz senar-emazte alkar aitu ezindako mokorkatuen gaitasunik-eza, sendiaren eta onekin aberiaren kaltegarri.

Augatik ba, al'baitik senar Jainko-zale, ekandon-tsua nayago izan bear dezu; eta onekin, zeure zorionaz gañera, zeure bearkunak betetzeko lagun eta zuzentzale bat izango dezu. Ez aitzu senar-emazte onak donokian idatzita daudela; eta aberiaren oneski dirala.

Urangoan J. I. sendi-eraltze ori zertan datzan aberiakiko, zertxobait bederik esango dizut; nik one-tzaz eman neikizun irakatsia ezin leike bear bezin osoa izan baña,

Aguñ ba, Itziartxo.

Tene.

VIII IDAZKIA



DIZKIDE NEREA: Sabin'en ikuñtzaren len-
nengo atalatzaz ari geranez, sendi-
-eraltzeatzaz dasakizudana, orain-
goan Jaungoikoarekiko bear-kunak

aipatuaz izango da; ba lenago ere esan dizut eta, aberia Jaungoikuarena izan dedin aberkideok bear degu Jainkoarenak izan; eta emakumeak eraltzen duan sendiak dagizki aberia dagiten aberkideak. Oregatik ba, emakumearen gain dago geyen bat aberiaren zori au; eta dezakeguna egin bear degu ardura guziz.

Zenbaitek uste du, emakumeak sendiko bere bear-kunak bete al'izateko, asko duala, eltzea egosten, soñekoak josten, eta etxe-aldea txukun ta garbia eukitzen jakitea. Eta au egin, umetxuak azi, soñakiko ardura bakañaz; sasoiria eltzen diranean ikastolara bidaldu; txadonara bidea irakatsi, or konpon egin ta eurak bakañik antxen jolastera bidalduaz; ¡ta kito!

Egiya esateko, au asko da. Emakumeok bakañik dakigu, zer lan dan lau edo bost umetxo ditun ama batentzat senañaren lantsari labur batekin, bere egin utsaz, sendia bear bezela erabiltzea. Ze lan aundia dan emakumearena, ze arazo ta nekeak ditun, umetxo oyek garbi ta txukun erabili bearak; senañak bear ditunak gertu eukitzea; janariak inguratu eta ipiñi bearak; etxaldea jaso ta txukuntzeak; au guzia geuk

emakumeak bakarrik dakigu; ze, gizionezkoak aitu edo ezagutuko baluteke, zigur nago, lotsatu egingo lirakela; or ibiltzen diran bezela, asere ta naspilan ibiltzen, lanerako ordu geyegi dituztela ta, atsedean geyago bear dutela ta abar.

Oni erantzungo diote gizasemearen lana aztunagoa dala ta abar. Baña au onela ez da beti; gañera emakumeak egunak ditun ordu guziak oi ditu lanean, eta aur-azketa sasoyan, agitz, gabian atsedeenik ez. Baña autzaz jardutia ez da idazki onen ziyoa; eta alderatu ba'naiz izan da sendiko andreak etxaldean ditun lan eta zeregin aundiyak ezagutzen ditudala azaltzera jua naizelako; ba izan zitekean, Itziartxo, ori guzia egite utsaz emakumeak bere bearkunak betetzen ez ditula esatean; eginkizun oyek ze zama duten berentzat nik ez dakidala zuk uste izatea. Eta nik ori guzia ondo dakit; eta dakidan areen dasaizut, au guzia egitea ez dala ezer bere egin-bearekiko, besterik ez ba'dagi. Ba notiñok ez degu soña bakarrik, eta bai soñaren gain dagon gogo bat ere. Soña gogo oren'pean bear deguna da; eta beoni bere elpurura zuzentzen laguntzekoa, besterik ez. Orenгатik gure ardurak gogoakiko bear ditugu lenengo; eta soñakiko, gogoari leikion onगतik.

Au, bakoitzak berekiko bezela, emakumeak jakin bear du, gañera umetxuak azitzean, aben soñaren ardurez gain, beren gogoen ardurea eukitzeko, beren biotzak eraltzen jakitzeko; ba au da ama batek bere umiekiko duan lenengo bearkuna.

Eta ez esan, len aipa ditudan ainbat lanak, ardura au edukitzea galerazten dionik, ez. Umek mendu,

beren biotzak onbidean eraldu, eta gogoak Jaungoikoagana zuzentzeko ardureak ez du asti berezirik bear; ez du eskuakiko edo soñakiko lanik bear, guzian beintzat. Bear duana da, bere bearkun onen ezaguera, eta onekin, naimen zuzen eta artezi pizka bat; ba au eduki ezkerro, berez dagi beste guzia; eta ain lanpetua dagon ama gaxo orek, lan oyek utzi bearik gabe, bere irakatsi eta onu eta ikasbide onakin sendia Jaungoikoarentzat azi al'izango du.

Ostera, bere bearkun au ezagutzen ez duan amak, gogoaren gain, soñaz arduratu bear duala uste duan emakume jakin ezak; alperik izango da zindoena, bere uste ta naimenak luditarak diranez, bere ardurak soñakikoak bakarrik; eta bere sendia ludirako eraltzen du; eta era ontako eraltzeatik sortzen dira gaurko egunian gure aberiaren zoritxar ditugun ainbeste nolabaiteko seme-alaba; gastedi makur eta galdua. Ez daigun ba au aiztu, eta bai zintzo-zintzo alegindu, gure bearkun onetatik datorkion ona aberiari opaltzen.

Jel-aldez zeurea.

Tene

IX IDAZKIA



TZIARTXO; Lenagoko idazki baten esan dizut uzkurtz - jakintzak emakumeari emango digula gure bear-kunak bete al'izateko ain beareko ditugun onbide,

artezi eta sendotasuna; gaur baña dasakizut baita emango digula, era baten, arako nausitasun bat, gaitasunak ematen duan nausitasuna; eta sendiya ondasunean eraldu al'izateko, au bear-beareko du emakumeak; ba nausitasun onen bidez ezez-ezez menperatuko ditu bere ardurapean dauden guziak; ezez-ezez bereganatuko ditu, eta bear bezela ondasunean eraldu. Eta auxe da lenen bear duan ardurea ama batek bere umeakin.

Umeak, txiki-txikia dan artean, azaltzen du, gure biotzak berez txarerako daukan makur au; txiki-txikia dan artean agertzen ditu griña gaiztoen ernemin kaltegarriak; arako, aserekeri, bekaitz, arokeri, biotzaren igi makur guztien azitzea; eta ama izaten da umearen makurkeri abek iñok baño lenago eta obeto ezagutzen dituna; eta amak izan bear du baita umearen gaitz on osakaia, bere magalian duan artian, ipintzen alegindu bear duana.

Umeari, batez ere txiki-txikiari, bere eruketarako ematen dion liñura oren bidez, bere gaiztakeriaren azi abek oraindik atsegingari aurkitzen ditugu; ez degu

beregan gaitzik arkitzen; egiaz ez du izan ere, gaitz oren ezaguerarik ez du-ta; baña ortik asitzen dira bere girna txararak indar artu eta gogortzen; eta oren-gatik amak bear du ardura aundiz, ume oñi, txiki-txikia dan arte onbiderako biotza eraltzen asi; gastea dan arte, biguña dan arte erezen egin al'izango du-ta.

Eta au, txikitxua dan arte, azitxuago danean, aundi danean, beti-beti; bere umeakiko ardura onetzaz beti ernai egonaz; soñakiko ardurez, bere ume oren osasunaren ardurez une guzietan egoten dan bezela; kaltegarri zayon ezertxo azketsi gabe; eta ongari zayon guzia irakatsiaz; ba ondo mendutako umetik ateratzen da gizon onoimentsu zindoa, bere buruaren, bere sendi ta aberiaren zoriongarri.

Umearen biotza onbidean eraltzeaz gañera, beronen adimena egiaren bidean zuzentzea ere amari dagokio.

Egiaz umearen irakaslea emakumea da, ama da; amaren magalean dagon artean asitzen da umearen adimena argitzen, bizitz ontako ezaguera artzen; ama da aldi ontan umearen ondoan dagona, eta bera baita, ume oren biotza ukituaz, bere adimen utsean egiaren azi ona erein bear duana; gerora donekuntza eta jakintzazko emaitz ederak bere Jaungoiko eta bere aberiari eskeñi ditzaizkiyontzat.

Bearkun onek emakumeari ardura aundi eta jakintza berezia deskayoz; egiazko maitasunean, eta uz-kurtzazko egietan arkituko ditun ardura eta jakintza; gaur eguneko emakume askok besterik uste ba'dute ere.

Zoritxárez, ardura artziak garantzi aundiena duan aldian, asitzen da ama asko eta askoren ardurea arintzen; aldi ontan asitzen da ama asko atsedean artzen; umea bulartetzeaz amaitu eta berau lenagoko zenbait arduraren bear ez danez, esan oi duan bezela «eskuak azkatu dizkalako» eta patxararik aundienaz gelditzen dira, onetara ezkeru umea aziya dagola-ta.

Iya aziya soñakiko, aitzen da, ama geyen lotzen duten ardura bearik gabe; baña gogoakiko aldi onetan asi bear da azitzen; umearen biotza onoinenean eraltzen, eta bere adimena egiaren bidean jartzen; bere Egileagana zuzentzen, Jaungoikoa ezagutu erazten.

Eta ez dago aitzakirik ama bat bearkun abetatik legazkatuko duanik. Aberatsa lotuago; geyenean ikasiago dalako, eta ikastearen bidez bearkun aben ezaguera geyagoa dualako; gañera agitz astidunago, eta bide geyago ditulako. Txiroa ere bai; baña ez aberatsa bezin lotzen duala; arek aña gaitasun eta bide, askotan oi ez ditulako. Ala ere bear-beartua dago beste ardura guzien gain; gure elburua Jainkoa danez, gure bizitza oretara zuzendu bear degulako.

Gure zorionerako oraindik ere Euzkadi'n Jaun-zinismenak bizirik dirau, batez ere emakume artean; eta oni eskerak, naiz ta bear dan ardura guziaz izan ez, umeari lenengo irakasten zayona da Jaungoikoa ezagutu ta maitatzen; augatik umearen eskuetan lenengo ipintzen dan idaztitxoa Kistar-ikastikoa oi da.

Baña ¡gure zoritxara! ume ori bere bularakin euzkera eman dion ama orek, uste oker baten ondorenez, gaur geyen-geyenetan umearen zoriona erdal-kerian dakus, eta otoi egiten erderaz irakasten dio,

edonorekin bezela Jaungoikoarekin ere gure izkuntzan erēzen eta ondoen mintzatuko ez ba'gñā bezela; edo ta Jaungoikoak gure izkuntz garbia entzun nai ez ba'leu bezela. Eta batere ohea ez dana, Kistar-ikasbidea ere erderaz damayo; bere umetxuak «dotriñea» erderaz ikasi dezala nai du, «euzkera iñorako ez dala ta». ¿Uste ote dute onelako emakumeak, gerora, ume oyek gizon izatera eltzen diranean, atzerian (naiz aberian) bizibide bat lortu al'izateko kistar-ikastian aztertuak izango dirala? ¡Gaxuak! ¡Bai obe oñela baltiz! ¡Besterik izango litzake gizartea!

Kistar-jakintza, bakoitzak gure gogoaren zuzenbiderako bear deguna da; eta umetxo euzkeldunai ikasti au erderaz ematea, uts eta alperikakoa da; geyago: bere bizitzako egiñenak zuzenduko ditun ikasbidea bear bezela ez ematea da; eta onekin umeari, geroko gizonai, eta ondorenez aberiari kalte bat ezartzea da.

Eta geyago luzatu gabe, gaurkoz, agur, Itziarixo.

Tene.

X IDAZKIA



IREN liziar maite oñi, agur: Jaraitzera nijoakizu lengoan asitako gayatzaz. Ama batek eman lezayoken irakatsien baño geyagoren bear, berealalik da umea, batez-ere gizonezkoa; ta gerora, ikastoletan artu ditun jakintza bidez, ez diruri, eta ez da uste izaten amaren irakatsien bear danik; baña ama baten onu ta irakatsi onak, beñere ez dira alpeñikakoak umearen gogoan; eta askotan oi dira ostian artzen ditun luditar jakintza eta artu-emanen zuzenbidea.

Orengatik, eta naiz ta bearik ez duela iruditu, ume izatetik gizon izatera eldu dan seme oñen ardurea beti bear du, onen gain duan maitasuna ainbatean onbidera zuzenduaz; ba maitasunaren eragñez soñakiko osasun ardureak beti dirautson bezela; gogoakiko ardureak ere onela irau bear dio bizi dan artean.

Zaindu bear ditu dagizkin adizkidetasunak, darabiltzen ibiliak; txikitan bere biotzian erein zitun zaletasun onak okertu eta makurtu ez ditezen; kistañari dagokiozen bear kunak ongi betetzen ditun; ba, gizonak naiz emakumeak bere zindotasunaren euskaia uzkurtzaletasunean du; eta auxe da ama batek bere onu, irakatsi, artezi eta otoyen bidez, bere semeak galdu ez dezan zaindu bear duana.

Zenbait amak baña, bere aundinaikeri eta bere

arokeriz, ez du aski semeak zindo eta bear bezelakoak izateaz; nai ditu beste amen semeen gain bereak ikusi; eta berak izaten dira beren onu makuréz saririk askotan seme oyen zoritxara dagitenak; aberastasunak lortzearen, eginkizun ausaregi, eta askotan onak ez diranetara bultzatuaz; txindi pizka bat izatearen, edozela eskondu-arazitzen dituztenak; eta eskondu ta gero aneika naspiletan sartu oi dituztenak; beren izakera oker onen bidez, umiai, aitzen da bere seme-alabei, onik baño okerik geyago dagizkiotenak.

Eta beste onenbeste dira beren alabekiko ere; abek onbidean jarai dituzaten alegindu bearean, aundinaikerira eta arokerira bultzatuaz, eskontza onuratsu baten amesez burua pustu-eraziez, saririk askotan abek galbidearen ziyo, edo ta aben zoritxarearen ziyo izaten dira.

Baña..... zer desakezut nik zuri, Itziartxo? Norano nua, neskaxa bati andre zaregan oi diran okerak edesten? Tira; bai'liteke, nik zuri desakizudazan oyetakoren batek irakurtia; eta irakurtian, bere okeraz konturatzea, eta osuan izakera oneratutzea. Orduan zerbait lortu det aberi-aldez lenaz gañera; ba emakumearen eragiña edonoiz eta edozela da almen aundiduna, eta aldez edo kaltez dezakena.

Zuri baño, beste zerbait esango dizut, bear bada obeto dagokizuna izan leike-ta; baño gaurko aski degu ta urengo arte. Jel-aldez.

Tene.

XI IDAZKIA



IZIARTXO maite-maitea: Lengoetan jardun naiz, onenean eskontzeko asmotan izango zeralakoan; bizibide ontan emakumeak Jainkoakiko ditugun zenbait bear-kun aipatuaz, aberiari dijoazkionez; baña eskontzeko asmotan izango zerañ orì, ez da nere aiera bat baizik; ba nik ez dakit besterik dezun ere. Augatik beste zerbait esatera nijoakizu gaur.

Zeure zorion aundiz, Jaungoikoak bere Eskon izatera deitu ba'zaitu, eta ludi au utzitzeko asmotan izan, ez aitzu Itziartxo, Jaungoikoa'rena osoago izatearen utzi dezun ludi gaizto ontan, zoritxar eta bear-izan aundian zure aberia gelditzen danik; ez aitzu, ludijan gelditu geranok ainbat, berau Jaungoikoarenatzen alegintzera beartua zaudenik; ba bai dakizu Berak eman digun guziakin, Bera'ri zor gerala; eta besterik ezin al ba'dezu ere, beintzat zure otoi garbi sutsuetan ez aitzu; ba, gure egiñen guziak alpeñikako dira, Goi-koaren eskar deuna geurekin ez ba'degu; eta ezer ez dagigu ere, Alguziduna'k laguntzen ez ba'digu. Augatik, eskatu; eskatu zure aberiak bear ditun eskarak; ez aitzu gure Euzkadi gaxuaren bear-izanak; eta otoi egin beronen alde emen alegintzen geranontzat oretarako bear ditugun laguntza, indar ta eskarak.

Baña baita, Jainkoak ala naita, eskonge gelditze-

ko asmoten ba-zera, ez uste izan, zure alegiñak garantzirik ez duteia aberi-aldez, ez; aundiya dute, eta asko lezakezu bizibide onetan ere. Bakoitzak bere bizikeran eta bere bearkun ingurutik alderatu gabe, dezakegu asko ta asko; eta eskongeak ez gutxi. Onetarako naimen on piska bat du asko.

Gauza asko eta asko dira eskonduak, bere lan eta arazo ugariagatik, ezin egin dituztenak; eta eskongeak bai, azkeago daudelako agitz. Batez ere, berekiko ontasunez eman leiken ikasbide ona, aberiari zuzen dijoakiyo, eta onen ondorea gustiz onuragari.

Neskatxa onbidetsua izateik, aberiari asko eta asko diyoakiyo; emakume eskongea da, gastea dan artean, zenbait jolas, dantza eta oitura txarén ziyoa; emakumea ez ba'litz ez lukete gure aberian, jolas gaizto eta dantza loyak, duten kalterik egin al-izango, bertan saferarik ez luteke-ta.

Gañera len esan dizudan bezela gauza asko eta asko dira, eskonduak ezin, eta eskongeak bai litezkenak. Batez ere ziñeskuntza zabaldu eta edatzen; berak lezaken era askotan txaungizondiari lagunduaz; umetxuen kistar-ikastietzaz arduratuaz; aundiyan uzkurtz-bearkunen jakintzaz arduratuaz; onetarako ingi eta edesti onak zabaldu eta abei lagunduaz; ba ainbeste jakintza gaizto ludiyan kalte izugarriak dagizkin garai abetan, lenen eta alegin aundienaz gaizto oyen aurka, irakurgai onak zabaltzen lan egin bear degu; abek ezin esan añeko ona dakarkiate gure aberiari-ta.

Gaur, Jaungoikoaren erukiz, euzkaldunak, orain arte izan degun baño laguntza geyagoa degu, onbi-

dea ikasi al izateko. Uzkuertz-idazti asko ditugu gure ele maitean; eta abek zabaltzetik letorkio aberiari, bere seme-alabak Egiyan ikastunago izatea; eta onen ondorenez aberkidien zindotasuna.

Onela ba, Itziartxo, eskongeak, eskondu-aurga-beak eta abar, ardura au artu al-izateko azke diranak, zintzo-zintzo arpidiak bildu, eta aldizki eta ingi uzkuertzale euzkerazkoak zabalduaz, ezer danik onik aundiyena egingo dio aberiari gaur; ba egite onen biar-izana berezia du.

Eta ara nola, ezer berezirik, ezer oi ez dakorik egin gabe, emakumeak bere bizi-bideko bearkun ingurutik ezertako irten gabe, on aundia leiken aberi-aldez, berau Jaungoikoa'ganatuaz; eta augatik ez du ziyorik, idazki aben lenengoetan aipatzen nizun zure bildur bidegabeak, Jel-maitasuna aintzat artzeko; ba ikuñitz done onen alde zuegintzeko, ez degu azaltze-berezi bearik.

Baita azaldu beara ba'degu ¿zergatik azaldu ez? ¿Zergatik antzartu ez, arako lenengoan aipatzen nizun bezela, Josu'ren nekaldiko emakume done ayek, beren Ikasle-aldez gizasemeak baño ausarkiago azaldu ziran emakume jainkoti ayek?

Ayek bezela, Jaun beraren jopuak gera; Aita beraren alabak; Irakasle beraren ikasleak; eta ayek bezela noz-nai eta edonon bildur gabe azaldu bear gera, Jainko oren Lege Deuna aldezten.

Azaldu, azaldu egin bear gera; batez ere orain, ludi guzia, gaiztokitik irten diran irakatsi galduen bidez, adimenak egautsi eta biotzak okertu eta ustelduta, zearo-nastuten dabilen ontan.

Bildurtu egin bear da, gaur ludiyan gertatzen dana oldozten ere. Eñdonon matxiñadak beren gaizkintza izugariekin; andi eta txiki-arteko gofotoak, beren kalte ezin esan alakoekin; gizarte guziko makurkeri eta zuzentasunik eza; itz baten: obenaren garaitza; go-kaiztoaren bakalduntza.

Zoritxarez, eridiak galzorian ipiñi ditun gaitz erailkoñaren ernemiña, gure aberian ere nabaitzen da; eta beronek beste oyen bidea artu ez dezan osakaia berelatik eman bearean gera; osakai onen ezaguera Jainkoa'ri eskerak bai degu.

Jaungoikoa'ren bildur deunean arkitzen da erien zoriona dagien zuzentasunaren asiera; Jaun-zinismenean baita, erien zorion ta gentza dagizkin bildur deun oren sustraia.

Orengatik ba, gogoan euki bear degu emakumeok, gizartean degun almen eta eragiña; eta bakoitza geure bizibideko bearkun inguruan alegindu bear gera, gure eragiñak, aberian Jaun-zinismenaren sendotasunezko emaitz ederak eman ditzaten; eta onekin beteko degu oso - osoan Arana - Goiri'tar Sabin'ek aberi-aldez aldeztu zuan ikuritz ederaren lenengo atala: «Jaungoikoa».

Bigarenatzaz J. l. urengoan asiko gera.

Tene.

XII IDAZKIA



NE maitea: Gauza asko eta asko gañez igaro ditut; azal-azaletik baño ez naiz jardun aberi-aldezeko, Jaungoikoakiko gure bearku-

nak azaltzen; nere gaitasunik eza, eta onetarako bear nuken aldi luzea eragozpen ditudalako; baña esateko gelditu zaidan guzia esanda ere, ezer berezirik ezin nezaken; berezitasunak, edo oi ez danak berak saritan gure bearkun ingurutik ateratzen gaitulako.

Auxe bera gertatuko zaizu bigarren atal edo «Lege Zaña»tzazko gure bearkunak azaldu nairik J. I. zuzenduko dizkitzudan idazkiatzaz ere; ezer berezirik ez dezu arkituko; ezer oi ez dakorik egin gabe «Lege Zar» aldez emakumeak ere gustiz egoki eta onurakor dan eran lan eder-edeña egin dezakegulako.

«Lege Zaña»tzaz aitzen degu gure aberiari legez dagokiozan eta orain galduak ditun eskubideak; bere buruaren jabe izateko bere-bereak ditun eskubideak; gure abenda zar onek bera artezteko izan ditun legeak; baña nola lege abek zearo galduaz gañera, beraben gai egiten gaitun gure notindasuna ere iya galduan degun, beafeko zaigu bene-benetan alegintzea gure notindasun onen alde; galdu ez eze, bañero ere len gendun bezin sendoki eduki daigun. Eta onetarako lan egin bear degu gure notindasun au

dagiten zeingiak alikatzen; itz baten, gure abendaren gogoá gaizkatzen.

Onetan ere, bai dezakegu emakumeak lan eder-edeñá benetan. Gure abenda, gure izkuntza, gure oiturak, gurea dan guzia bizitz sendo batera ekartzen. Eta orok dezakegu; dana dala gure bizi-bidea, dana dala gure gaitasuna, diranak dirala gure almenak.

Ikusiko dezu ba, Itziartxo, labur bederik, nola emakumeak, geuri ez dagokigun gauzarik eta agerpenik egin gabe, lotsa onean, Jaungoikoak ipiñi gaitun bizibidean, geure bearkunak beteaz, zer dezakegun; bai gure abenda, ele, oitura eta gure gauza oro alde. Guzia egiteko ez da besterik bear; zaletasuna, maitasuna, abertzaletasuna.

Urango arte ba; eta bitartean Jel-aldez zurea.

Tene.

XIII IDAZKIA



IREN Itziar nerea: Lenbizi, abenda alde-
dez lezakegun zertxobait esan bear
dizut.

Jakiña dago, euzkoak geurez abenda bat dagigu-
na; abenda bakar, garbi, sendo bat; inguratzen gai-
tun erietako abendaz zer ikusirik ez duana; eta auxe
beste zeingirik ez ba'gendu ere, beronek berez, ema-
ten digu euzkotar erri bat eraltzeko eskubidea; eta
onek, erri ori bezela, azke izateko eskubidea ere bai.
Eta au, inguratzen gaituenak baño lenago erri bat gi-
ñala esatea alde bat utzita; beti bere buruan jabe izan
zan erri bat giñala esatea utzita; abenda bat eratzeak
ematen digun eskubideak aipatuta, alegin guzian zain-
du bear degu gure notindasuna dagin zeingi au, or-
aındaño bezin sendo eta garbi iraun erazoaz.

Beronen zati geranez, geurez, eta geuri dagoki-
gun aldetik emakumeak ere asko genezakegu; eta
genezakeguna bere aldez ipiñi bear degu. Onetako,
lenen-lenengo geure osasuna opaldu bear diogu. Ja-
kiña dago, osasuna, beste ondasun guziak bezela,
Jaungoikoa'ren emaitz bat degu; bere eskuetan du gu-
zi ori eman edo kentzea; eta ez dago gure gain berau
izatea. Baña saririk askotan, geu izan oi gera gure
gaxotasunaren ziyo; gure arduregabekeri eta sentzu-
menik-eza gure soin-aultasunaren zegaitia. Eta jun zan

gure abenda, baldin gaurko gizasemien izamen aje-
tuakin gurea auldua batzen ba'degu.

Osasuna da gauza bat, guziok eta bakoitzak, ezer
baño geyago nai deguna; eta ardura geyenez zain-
tzen deguna, bizitz oni diogun zaletasunagatik eta
gaxotasunak berekin daruan nekearen bilduragatik.
Baña askotan, zaintzen degulakoan, kalte baño ez
diogu egiten, gure arduragabekeri eta sentzumenik
ezakin.

Egiya da, bizitzako beartasun eta erazpenak gauz
andiyak dirala; eta onek sañirik askotan notiñak bear-
tzen ditu osasunaren kaltez alegintzerako; baño egiya
da baita beste asko ta askotan erazpen oñetara bear
baño geyago menperatzen gerala, osasunari dagio-
gun kaltearen erudun gure buruak egiñaz. Au gizase-
mietan ainbat emakumietan gertatzen da.

Zenbait eta zenbait emakume ez dira, arako da-
gokien baño mala goragoan gizartean azaltzearen,
beren buruak eta beren sendiak elikatzen edo janari-
tzen bear duten txindia, aundikeri eta jantzi-geikerian
ondatzen dutenak! Zenbait neskatxak, senar aberats
edo andiki bat lortzearen, beren buruak apaintzen eta
edertzen ondatzen dute jateko bear zutena, beren iza-
men aula indartzeko bear zutena!

Bai dira baita beartsu artean, nai dutena egiñaz
bizitzearen, azke, beren buruai era obea emanaz, nes-
kame etxe on baten egon litekezanak, ondo alikatu
eta ondo begituak, ola osasun-kaltegarrietan beren
buruak ajetuaz lana egiten dutenak. Batzuk au onela
egitera beartzen dituzten ziyoak izango dituzte, baño
gutxitan; eta bai asko ta askotan irabazietan ere

beren buruen kaltean, ba geyen-geyenean ola-neska-
txak baño, neskameak txindi geyago du aureratuta.
Eta ez esan olakoak etxera geyago laguntzen dua-
nik; ezta; ba onek bere alogera beronek darama; eta
alogera onek daramakio osasuna; ba beñere ez da
olako lan era batekoa, emakumeok etxaldian oi ditu-
gun zeregiñak bezin osasungai eta onuratsu. Eta
onetarako eziñik ez da; ba gaur egunean aloger ona
irabazteko tokiak baño, lantsari ona irabazteko nes-
kame-tokiak geyago dira.

Eta zenbat ama, ume azitzen arduragabeak, aberi-
ari landara sendoak opaldu bearean, aul eta ajetuak
beren eruz opaltzen diotenak; eta txindi pizka baten-
gatik, beren umeak, ze izamenekin naztuko ditun ez
dakien beste ama bati emanaz, bere burua zertizaz ku-
tsutu leiken ez dakien beste ume bat azitzera jua ten
diranak; eta abar eta abar.

Eta ez nijoakizu beste emakume ordi, ta galduak,
beren gaiztakeriz abendari dagioten kalteak aipa-
tzera; oyek ez dijoaz zuri dagizkizudan idazkitxo abek
irakurtera; eta irakuri ta ere, bere gogoari eta bere
soñari maitasunik ez dionak ezin leikio aberiari izan,
eta ez luteke artuko aintzat inolako onu eta esan onik.
Utzi ditzagun ba.

Len aipa ditudan kalte oyek ezagutu; eta oyetako-
rik ba dagigu, ongitu daigun al-baitik; eta aipa ez de-
tan besteren bat ba dagigu ere berdin; ba aberiari on
aundia egingo diogu abendari dagokion aldetik, gure
eskuan deguna opalduaz.

Eta oraindaño aipa dizudana onen sendotasunari
dijoakio: gure aldetik ba beste zerbañ ere bai leikegu

abenda garbitasunatzaz: eskontzean, gure abendakoa ez danakin ez eskontzea. Egiya esan, ez naiz azartzen esatera, euzkotara izan ezik inorekin ez eskontzeko; ori ez. Aberriaganako bearkunaren gain degu geure gogoaren gaizkatzea; eta bizibide bat artu edo ezetik galdu leike au. Orengatik ez dizut esango, zeuk eskondu nai, senargai euzkotar onik euki ez, eta ofela dan atzeritar bat bai, zure abendari kalterik ez egitearen zure gogoari egiteko; baña au ez da beti gertatzen, eta al-ba'dezu beintzat, atzeritar eta euzkotaren artian euzkotara aukeratu; ori bai. Eta au onela izan dedin, zeuri dagokizun añian alegindu ere bai.

Eta egokimen au ba'dezu, eta Jaungoikoak aurtxo batzun ama egin, azi itzatzu ardura bereziz, sendo eta osasuntsu; onetarako bear dezun jakintza artzen zintzo alegindu-ta.

Ufengoan, gure izkuntz-alde bear degunatzaz zerbait esango dizut.

Ordura arte ba. Agur, Itziartxo.

Tene.

XIV IDAZKIA



AITE-MAITEA: Beste on guziaz gañera, zuk eta nik, Itziartxo, Jaungoikoari zor diogu euzkotar eta euzkeldun izatea; eta neretzat beintzat, ezer

zaidanik pozkarrien bai da au.

Euzkotariak, eta euzkotar-euzkeldunak.... jara zer pozturik asko! Abendarik omengarienetaikoak, eta elerik aundi eta ederenetakodunak, Jaunari eskerak.

Euzkotariak eta gañera euzkeldunak..... ¡O gure euzkera gozoa! ¡O amaren magalean ikasi gendun izkuntz samura! Maite ote zaitugu bear ainbat? Ara emen nere zaletasun guzien gain inoiz nere buruari dagiodan itauna: ¿Maite ote degu gure izkuntza, bear ainbat, bear bezela...? Ez det uste.

Aundi-zalekeri, arokeri eta beste kerri guziakin batera sartu zaigu gure artean erdelkeria ere; ekandu onakin batera guaz utzitzen gure euzkera gaixua ere, arako gauza ezerez eta alpeñikakotzat bezela; geure aundinaikeriakin elkartu ezin liteken gauza bat bezela; eta gure zalekeri txaren arantz-arteaz guaz uraturik utziyaz era bat ontasun eta euzkeltzaletasuna.

Biziro sartu da erdalkeria emakume artean; euzkeldun erian, emakumea da euzkera sustraitik jaten duan zerena; emakumea euzkereari galbiderontz geyen bultzatzen dion indara, sendian beintzat; eta gure

ele au gaizkatu nai ba'da, emakumea da lenen bere aldez ipiñi bear dan gaikia.

Bai diruri gai onetan euzkeltzaleak ez gaituela bear ainbat aintzat artzen emakumeak; nere ustez ez diote gure eragiñari bear ainbat gañantzi ematen; eta orëla dakusgu gaur gizaseme euzkeltzaleak, bere almen eta indarëan geyegi ziñestuta, gu gabe, guri deirik egin gabe, beren aldetik alegintzen euzkera gaizkatu nairik, bear dan onu gabe; emakumeak dagiogun kalteari begitzen ez diolako, gañantzirik ematen ez diolako, aintzat artzen ez dualako.

Ez gera gu uts oni begira gelditu bear geranak ala ere; eta bai gure erua ezagutu eta len-bait-len osagaia ipiñi bear degunok, dagokigun bezela; eta gure ele aldez ezer egin nai ba'degu, beartuak gauden bezela.

Oni dagiogun kalteaz zertzaz salaturik ez ba'dar-kigu, poztu gaitezen, gure euzkeltzaletasuna bera izango da gure ingurukoak zaletasun onetarako irabazteko indarrik eragikoëna-ta. Eta alegindu bear gera zaletasun au zabaltzen gu emakumiok, gogoan eukiyaz berau izango dala gure ontasunaren euskai bat eta gure euzkera il-zorian daukan gaitzarentzat osagai bat.

Onetzaz dagikezunatzaz jaraituko degu ba. Ufengo arte, maite,

Tene

XV IDAZKIA



NE maite: Abindu nizun bezela, emen natorkizu emakumeok geure ele-aldez zenbat dezakegun eta nola ele-gindu bear geran azaldu nayez.

Asko dezakegu, asko; ain asko eze, gu gabe emakume euzkeltzale gabe, ezin liteke euzkerak bizirik iraun, beste eleena bezela, beronen bizia ere, erabilia, aoz erabilia izatean dagolako; eta gizadiaren zati bat egiten degunez (ontan ere esaten dutenez gizasemeak baño zati aundiagoa), gizadiaren erdi bat egiten degunez, beñere ez da gauzen aldez edo kaltez gure eragiña aintzat ez artzekoa; len ere au bein baño geyagotan esan det-eta; eta bai zenbait gauzetarako gizasemeena baño almen geyagoduna: sustrayagotik ukitzen diegulako edo ta beren oñaria dagigulako; oren-gatik gera gu gauz oyen zoria erabaki dezakegunak. Abetako batzuk dira eleak, edo izkuntzak gizartean; eta gure aberien elea euzkerea. Biziko ba'da, ele ila izango ezpa'da, beste guzien gain emakumien egipena da lenen lenen bear duana eta esango dizut zergatik.

Lenbizi elearen osasuna gaztedian dago: iraungo ba'du, gizaldi guztietan erabiliko duten gazteak bear ditu: eta gaztedi euzkeldun ori umeak dagie: amak aziko dituen umeak.

Orain desakezuna da, lenen bear dana, ama ori euzkelduna izatea dala. Egia, baña euzkeraz ari naiz, euzkelduna zeran ořentzat, eta irakurtzen nabere emakume euzkeldunentzat. Aberizalien egintza bat da; euzkotar erdeldunak euzkeltzaletu eta al-ba'da euzkeldun-arazitzea; eta beste bat euzkeldun erdeltzaleak euzkeltzaletu, eta gure ele onen alde lan egiten ipintea. Azkenengo au egin nayer nabil; eta jaraitzera noa.

Jainkoari eskerak, Euzkadi'n oraindik euzkeldun asko gera: aziak nok erein, asko degu; gaurko, eta bigariko ama euzkeldun asko; eta ara emen euzkerarentzat itxaropen eder bat: ama euzkeldunak.

Euzkeldun eta ama: ¿zer geyago bear du emakume euzkotarak bere ele alde lanik edereña egin alizateko? Bere umetxuak euzkeldun eta euzkeltzale azi, ara emen emakume abertzalearen egiteko garantzi aundidun bat, eta euzkera-alde eragipen aundidun bat.

Amaren magalian ikasitako izkuntza oi du geyengeyenean gizonak izkuntz berea, eta amaren magalian maitatzen ikasitakoa, beti maiteko duan izkuntza; eta auxe da euzkerak, biziko ba'da, bear-beareko duana: bere eletzat artu eta maitatuko duten semeak. Abek beriz, dasakizudan bezela, emakumeak eman lezaizkio iñork baño obeto, osoago, beretzakoago.

Etzayo onekin ama euzkeldunari zala zayon gauza ezkatzen; bere eleaganako maitasun puska bat; bereberea dan izkuntzaganako ongina puska bat; besterik ez maitasuna baño, maitasun onek, ongina onek, bere umetxuak euzkeldun eta euzkeltzale azi araziko dizkafat. Eta ama euzkeldun batentzat, bere umetxua euz-

keraz azitzea, inola ere xamur, estitsu eta atsegingar-
iagoa izan bear biotzeko puzkari dion maitasun bizia
lasaitzeko, bere ele jatorak ere, berezko gozo-gozoa
eskintzen diolako; bere barundik berez ta erez-erez
ateratzen dan izkuntzaz, itz gozo, ezti eta lilugafia-
goak esan lezazkiolako. Onetan ezpairik ez dago.

Emakumea eta euzkeldun jatorá, umetxoren bat
magalean artzean, ez dakit beronekin nere izkuntza
besterik erabilten: eta au igari gabe; ain maite ditudan
umetxuari, euzkeraz izan ezik, maitasunezko itz go-
zorik esaten ez dakidalako: nere maitasunak, nere iz-
kuntzan bezin itz eztitsurik arkitzen ez dualako: eta
abek bezin erez ta xamur besterik ezin dezazkelako:
azkenez berabek esaten aña atsegin, besterik esaten
artzen ez detalako.

Orengatik, ama euzkeldunen bat nabaitzen deta-
nian bere umetxuaz erderaz egiten, eruki izaten det;
uste oker edo aro batengatik, umetxua erdeldun azi
ezkero jakintsuago eta aundiago izango dan uste
okegaratik, amatasunak bere biotzean sortu duan
maitasun xamurari, berau lasaitu eta itzez nai be-
zela azaltzeko atsegiña ukatzen diolako: ama baten
biotzarentzat inola ere atsegingari-atsegingariena dan
gauza bat bere buruari ukatzen diolako: eta au dasa-
dan bezela, uste oker bategatik... ¡gaxoa!

Orela ba, ama euzkeldunari bere ele-aldez lanik
ederen eta aundiena egitea, etzayo ez neke ez lan; eta
ez du ezetako buru ukatzerik bear; eta bai maitasun
eta zaletasun legezko baten sari, aur-azketan, bere
biotzarentzat atsegin aundiago eta ederago bat. Ume-
txuari bere elez mintzatuaz, bere elez abestuaz eta

otoi egiten irakatsiaz, euzkeltzale jakitunak ainbeste neke ta arazokin egin al-dutena baño lan garantzi aundiagoduna dagi; au da: beren eletzat artu eta maitatuko duten semeak euzkereari ematea; eta onekin, bizirik izateko bear-beareko duan osasuna ematea.

Begira ba, Itziartxo, emakumeak alde ontatik bakarik begituta ere, ama dan aldetik bakarik begituta ere, zenbat eta zenbat lezaken aberi-aldez; euzkerearen baratza edera landara beri mardulez ornituaz, beti loratsu eta bizirik eukiko duten landara ederez jantzi az.

Gertatu leike, sendi bat edo besten aita erdeltzalea dalako, ama euzkeltzaleak bere ele maitea ume-azketan edo erabilteko eragozpena aurkitzea. Bañan au gutxitan oi da; eta ia beñere ez du gizasemeak bere erdeltzaletasuna, emazteari umetxuaz euzkeraz itz egitea galerazoteraño, eramaten. Eta aurka au ez dan bitartean, emakumeak asko lezake; asko baño geyago: guzia. Ba ama euzkeltzale dan bitartean, alperik aita erdeltzale amoratuen, amaren zaletasuna nagosi izango da, eta sendia euzkeltzale. Erdereaz beintzat ori da gertatzen dana; emakumeak gaitula bere zale, eta emakumeak egiten diogu laguntza izugaria gure aberi erukiaren jabe egiteratzen.

¿Ez ote dira gure biotzak Ama'ren aldez igituko? Bai al'nunbait, asko lezakegu-ta.

Bañan ez bakarik lezake emakumeak ama bezela; edozela, dana-dala bere izate eta bizikera: eta onetzaz urengoan jaraituko degu.

Tene.

XVI IDAZKIA



TZIARTXO, adizkide nerea: Len, ama diranentzat esan detana, berentzat artu bear dute baita, arako ama izan gabe beren ardurapian umetxuak

dituzten emakume orok; edo ta beren etxian dituztenak, naiz sendietan irakasle diranak; itz baten, umetxuekin artu-emana duten emakume oro: ba emakumeok era bat edo beste, geure edo besteren, ume inguruan oi gera, eta oyetan euzkera eta euzkeltzaleta-suna ereiten alegindu bear gera.

Gañera geuk, beti erabili: ez txikiakin bakañik, baita aundiekin: eta lagun artean, lantegian, etxealdean, edonun: euskeraren-aldez erderaz ezta-baidan jardun gabe, (au ere bai, bear danean baña) eta bai, ezer esan gabe, erdaltzale artean ari geranean, erderaz esaten digutenari euzkeraz erantzunaz: eta geuk onela itz egiñaz; ba emakume artean erdaltzale asko dago, ezegatik ere euren erdera mordolua utzitzen ez dutenak; eta onelakoekin gertatzen da askotan euzkeltzaleak ayen erderara jo, ta guztiak arotz izkuntzez. Onetan kontu aundija bear degu geuriari eutsitzen; eta izketan gauden edonun eta edozeiñekin, batez ere euzkeldun artian, eziñik ez dago-ta, iraukor, leyatsu, jardun bear gera gure euzkera ezari eta gaindutzen.

Gañera baita euzkel-ingiak zabaltzen ere; oyen-

tzat arpidiak bildu; bat eta bestean eskutaratzen zaizkigun euzkel irakurgayak zabaldu; beraren alde itzegin egokitzen zaigun gustian, egokimen au sarri degu-ta; edozelan alegindu euzkerazko irakurgaitara euzkeltzale oro zaletu daitezcan; eta au lortzeko, ezerez ba'dagigu bezela, euzkerazko iragurgai onuratsu eta politikak direnak gorde, eta onuratsu politikak diran aitzakiz, erdeltzalei irakuri, euzkeraz ere irakurgai egokiak ba'dirala jakin-erazoteko; eta euzkeraz irakurtia zala eta aztuna dan uste okera berengandik jaurtitzeko; itz baten; al guzia, eta al guzian eta edozela zerbait gure izkuntz-alde. Maite ba'degu, gure maitasunak irakatsiko digu alegintzen, eta baita alegindu-erazi ere.

Eri askotan Ama Neskutsa'ren aintzazko elizkixunetan, Mire-Alaba'en gain izan oi dira abestiak; neskak abesten dute elizkixun oyetan. Ara ba emen ere, Itziartxo, beste era bat euzkera-aldez egiteko.

Zoritxarez, euzkaldun usak diran eri batzutan, Miren-Alabak beti erderaz abesten dute; eta au Bilera'ko agintari diran neskak, edo ta zuzendari diran jaupariak, erdaltzale diralako. Onelakoak, eta beren artean, euzkeltzale dan neskaxaren batek euzkeraren alde, gure izkuntzaz abestu bear dutela eskatzen ba'du, erantzun bat dute: «Zuek elizara ere politikakin zatozte; Ama Birjiñak euzkeraz bezin ederki erderaz entenitzen du, eta erderaz kantau bear degu». Ateraldi oni gogor erantzun, Itziartxo: «Zuek zerate politikakin elizara zatoztenak atzeriko izkuntza sartu nayaz. Eta zeuk esaten dezun bezela, Ama Neskutsa'k izkuntz bat bezin ondo bestea aitzen duanez, geurean abestu bear diogu». Eta onela gogor egin, gertu egon eta.....

zeureakin irten arte, era bat edo beste, ala edo onela.

Zintzo ba alegindu bear gera, edonora bezela, gure txadonetara euzkera eramaten, abetan euzkeraz abesten; eta au bai, batere bildur gabe, eta ezpai gabe dezakegula; ba onela egiñaz ez bakarik gure eresi, gure olerki eta gure elea goratzen ditugu; baita txadonan dauden notin euzkeldunak obeto aituko dituztenez abestiok, Jainkoari aintza geyago eman ere dezayokegulako.

Onela nik esan ezin ainbat eratara euzkera - aldez leyatu geinge; guztia da, maite izatea; ba len esan dizudan bezela, maitasunak berak erazi eta berak irakatsiko digu nola.

Agur ba.

Tene.

XVII IDAZKIA



IREN Itziar maite ori, agur. Euzkerea-
tzaz jardun, eta euzkel-ixenak aipa-
tu gabe ezin neikizu utzi.

Arana - Goiri'tar Sabin'i eskañak,
len ez genduzenak, orain oyek ere ba'ditugu, gure iz-
kuntz maitearen osagalu eta edergari; onezaz gañera
geure euzkotasunaren ezaugari. Abek ipintzen eta era-
biltzen baita alegindu bear gera; ba ez dijoakiye gutxi
euzkel-ixenoi emakumeak beren zale izan edo ez.

Uts egiteko bildur gabe esan neike, oraindiño ipiñi
diran euzkel-ixen gustiak, edo beintzat geyenak, giza-
semen abertzaletasunari zor zayokela; eta ipiñitako
oyek ez erabilia, geyen-geyen bat baita emakumeai;
batzutan erdelkeriz, bestietan koldartasunez dagio
emakumeak kalte au euzkel-ixenai. Egiya esan, giza-
semea abertzaletasunean sendo ba'lego, ez luke gal-
tzen utziko berak ipiñi-arazi duan euzkel-ixen ori; eta
bereakin aterako litzake; baña zeinbat emakume ez li-
tzakez beretik aterako, ez da egunoro bere bizkañan
gorosti-makila bat ausita ere. Eta aitak ipiñitako ixena,
amak kendu egiten dio umetxoari.

Alde bat ez naiz aritzen au gertatzeaz; ba emaku-
meari au geyenean koldartasunak eragiten edo arazi-
tzen dio; eta koldar izatea, euzkel-izenen zegaitia ja-
kin ezak, eta abertzaletasunik ezak.

Gizasemeak, ipintzen duanian izan ezik, umearen

euzkel-ixen oñekin ez du arerioeri arpegi eman bearrik, gertaketa banakaren baten edo bestean izan ezik; baña emakumeak, aurari euzkel-ixen ori ezari dioten unetik bertatik, arpegi eman biar izan oi die, edozelako erdeltzale eta arerioai.

Ama da, une guzietan aurá berekin duana; amari oi zaizkiyo aurak ze izen duan galdeak; eta galde onei erantzutean saririk askotan arkitzen da, bere kutunaren ixenari egin zayon destañari arpegi eman bearean. Ba euzkel-ixenak, abertzalienak diranez oraindik beintzat, abertzaleak bakañik darabilzkgigunez, eta abertzaletasuna aitzen ematen dutenez, arerio biziak dituzte; eta arerio abek era duten guzian beren kalte ekiten dute. Eta kalte eta aurka ekifeko era, edonoiz, izen ori daraman aurak eskeintzen diote; eta aurá daraman ama da ekin oyei arpegi eman bear izaten diena.

Aundiya izaten da gaxo onen laríya, baldin onelako arerioresen batek, (geyenean emakumea au ere) euzkeldunak orain arte ez ditugula oñelako ixenik izan, eta oyek ez direla euzkeldunenak eta abar ekifen dionean, oñelakoeri ez bai-daki erantzuten, orain darabilzkgun erdal-ixenak ere ez direla gureak, eta bai arotzak ezariak; eta oyek erderazko diralako, eta Sabin'enak euzkera egokiguak, abek artu bear ditugula.

Lari ikusten da baita arerio kirtenak «Josu, Miren eta Joseba», Sendi deunaren izenak ez dirala esanaz aurkezten zaizkionean, «Jesus, Maria eta Jose» ere ez dirala erantzuten ez ba'daki; euzkotar deun andia «Inaki» ezpazan, «Ignacio» ere etzala erantzuten ez ba'daki; eta onelako arazo zitelen bildurez asten dira inoren aurian euzkel-izenak bastertzen, etxian ere bil-

durez, eta gutxi-gutxika auraren euzkel-izen edera erderazko biurtzen.

Eta ama erdeltzalia danean beriz umearen ixen ori, ipiñi zitzayonean bakañik entzun; aitaren asare eta lei gustiak gora-bera.

Ala ere ama aberitzale eta euzkeltzale bene-bene-lakuak asko dira; eta abek beren seme-alaben euzkel-izenak pozik eta aro erabiltzen dituzte; eta arerio zitelari gogor arpegi eman eta lotsagari utzi, erantzun egokiak emanaz.

Onelakoak izan bear gera emakume oro; eta ez aitzu, gure ixenok sartuaz, era bat edo beste; umeai ipiñiaz, geure artean itzez, eta idatziz erabiliñaz, gure notindasuna agiriago ipiñiko degula; eta onek garrantzi aundia du aberi-aldez.

Eta amaitzeko baita beste zertxobait esan bear dituzt. Euzkel-izenak dirala eta ez, noizbaiten gertatu leike, jaupari erdaltzale zital baten eruz, gurasoa aurkitzea, edo kistar-bearkunai uts-eman, edo aberiaki-koai. Onelakoan al guzia egin, ori bai, zeure eskubidea aldeztan; baña besterik ezean aberiaganako bear-kunai lenago uts-eman, kistar bezela dituzunai baño.

Sutsu eta benetan aberia eta aberiari dagokion guzia aldeztu bear degun aren, ez gera baña gauza gustien gain beragana zaletu bear. Gure betiko Aberia Donokia da; eta gure elburua Jaungoikua. Beraz ikasi daigun baita beko gauza abei, berez dagokien garrantzia ematen, geyagorik ez; gauza gustien gañetiko alegiñak Jaungoikua'rentzat; eta onela egingo ditugu, gure buruak zoriontsu, eta aberia baita.

Tene.

XVIII IDAZKIA



TZIARTXO maite maitea: Euzkotarak abenda bat dagigun ezaugarri, geure izkuntzaz gañera, geure - geuriak diran oiturak ere bai-ditugu, gure asaba ziñismendun eta zintzo ayengandik datorkigun guzia bezala, on-onak ala ere. Onak ditugulako, eta gañera geure-geuriak, alegiñez zaindu bear ditugu; ba abek zainduaz, atzeritik sartuaz datorzkigun oitura zikin eta galduen kaltetik aberria gordeko degu; eta iraun-araziaz, geure zeingi bizi ezaugarriari batez eutsiko diogu.

Ez dizut esango aben alde emakumeak ezer bereririk leikegunik; bai baña, guzian bezala, gizonaren launkide geranez, onek lezakena dezakegula; edo beintzat berau bezela alegindu bear gerala; ta gure alegiña bear-beareko du aberiak onetan ere beste guzian bezela.

Batez ere, alako, sendietako alkartasun eta batasunaren euskai diran, ainbat eta ainbat ditugun, oitura ederak zaintzen, eta abei eutsitzen emakumeok asko dezakegu; ba emakumea da etxe aldean sendiaren egin bear guzien artezkari.

Oitura abek ditugu, arako uri batzutan batera; bestietan bestera, baña guzietan alde gutxikin, sendien alkartasuna dagiten «artu-emanak».

«Artu-eman» ixenak berak dasan bezela, dagokigunean artu eta dagokigunean eman-bear bat da; sendiak elkar-arteko anaitasunean irauteko bata bestian artean elkarri ezari dioten bearkun bat.

Oitura oni erantzun beara izaten da agitz jayotzar-en bat danean, eta sendiko norbait iltzea gertatzen danean.

Ara: sendi baten jayotza bat izan da; eta sendi onek, bere sende artean «artu-eman» dauka. Jakiña, artu-eman ontan zegokion garayan erantzun izan dualako, beartuak daude bere kideak beroni ordañez erantzuten, eta batzuk pozez, maitez, eta besteak bearez beren adizkidetasuna nolakoa dan, alako goguz erantzungo dute; sendi oretara agertuaz dagokien ikeraldia egiten, eta ikertze ontan eramatea dagokiona eramaten. «Artu-eman» izatez auxe da, baña onek dakarrena askoz geyagoa.

Gutxitan oi da inor oitura abetako emokun-bear; eta bear ba'da ere, ez du ezer asko irabasten, dakarrena, itxura dan bezala, ikeraldi bertan zerbaitetzaz jateitu oi dalako; eta batez ere basetxietan, egun jakin bat oi dute, (aur-egin beña sendatzian edo) emazkai abekin oroen ikeraldia artzeko, eta orduan bazkari edo otoruntz batekin ospatzen dute sendian izan dan gertakari pozkaria. Biltze oni «atso-loña» eta aur-egin beñari daramayoten bezuzari «emazkaia» deitzen za-yote, nere erian beintzat.

Guazen baña oitura aben alde onari begituaz. Elkarri ikeraldia egitea beartzen gaitun «artu-eman» abek izan oi dira asarē asko eta askoren amaya; adizkidetasun beñi baten asitzeko zegaitia; eta baita zenbaten

gorotoak ausitzén diran unea; ikeráldi au bide dala berau aitzaki artuta, bestela elkaréganatuko ez liraken notin asko elkaréganatzen diralako; nai-ta-ez elkari itz-egin bearían aurkitzen diralako; nai-ta-ez bata besteagana makurtu bear izaten dutelako. Eta sarítan, elkaréri itz-egiten asitzea izaten da seni-arteko gentzaren asiera; maitasun eder baten ziyoa; aseferik askoren zegaitia uskeri bat askotan oi da-ta.

Edonoiz da sendiak elkartzeko bide bat; eta sendien elkartasunak aberi osoaren batasuna dakar; elkaréntzako maitasuna; eta au aberiaren zorion-gai bat da.

Eta «artu-eman» au edereña da, norbait iltzen danean. Sendiren baten norbait iltzen danean; eta sendi au «artu-eman» duna izan, ordu-itzal abetan oitura onen legez, maitasun-agertze edereñeitako bat izaten da, nere eritxoan beintzat. Au da, il danaren gogo-aldez jaupak ateratzeko ukar jakin bat ematea sendikoai.

¿Uste dezu, Itziartxo, oitura au baño edereagorik? Nik ez.

Ilén gogo-aldez jaupak ateratzeko ukarén emokun onekin, maitasun edereña agertzen da. Sendiari, il danaren aldez dagigunaz, bere atsekabearen aringarí damayogu poz bat; il danari, bere gogo-aldez dagigun opalben ederaz, laguntasun aundi eta maitekoñ; eta Jaungoikoa'ri Bere'ganako zifñismen-agertze onetan, aintza aundia baita. Guzi onetzaz gañera, gauzaki aldetik begituta, ukar au, gure eliz-gixondiaren euskai bat da, onen ardurea ere kistar onai bear-beareko zaigu-ta; on guzia dakarkigun Jaun-zifñismenak gure aberian iraun dezan.

Eta onela, era bat edo bestera «artu-emanak» beste aldi batzutan ere beartzen dute, baña ez nijoakizu luzatzen, esan dizudana aski dezu zeure erian dituzunaz konturatu, ete oyei eusten alegintzeko.

Ostian (eta naiz au gure oitura berezia izan ez) gabonetan-da elkarri bezuzak eskeintzia bezala arizea, eta abar beste orielako elkartasunezko artu-eman guziak, zindo zaindu bear ditugu geure erietan; elkartasuna, anaitasuna, erietako gentza eta zorionbide oi da-ta. Au onela usterik aipa dizkitzut «artu-emanak».

Ostian bai-ditugu arako geure Jaun-zinñizmena agertu oi duten oitura lau bereziak; elkarri, biotz-aguria dasayotenak; ete guzitara gure izakera berezia agerizen dutenak.

Onela baita gure dantza ta jolasak; ta gure jai gentzatzu ederak.

Bai-ditugu baita oitura, naiz ta gure notindasunari dagokiotenak izan ez, gure izkuntzaren osagai eta edergari izanik, elkarrentzat agurgari diranak. Onelakoak, elkarri oi diguzan agur eta opalben erazkuak.

Itz baten, maitasun piska bat ba'diogu gure aberiari, maitasun onek konturatu araziko digu, zertzuk ditugun zaindu bearian gauden gure oitura ederok, eta maitasun berak, gure indara beren aldezi ipiñi-arazi ere.

Alegindu gaitezen ba, Itziartxo, emakumeok ere geuri dagokigun aldetik beti-beti lezayokegu aberiari on aundia-ta.

Agur ba, Jel-aldez.

Tene.

XIX IDAZKIA



IREN Itziartxo maite oñi, agur. Gaurko onetzaz amaitzera nua, zeuri aberi-aldez zuzendu dizkitzudan idazkiok; guztiak baldar-xamar eta gaiak azal-azaletik bakañik erabiliñaz; baña onenbestekin konturatuko zīñan, ez degula emakumeok bilduriñ izan bear Jel-aldez alegintzen ekiteko, ba oñetarako ez degu ezer bereziki eta geure bearkun ingurutik ateratzen gaitun ezer egin beariñk.

Eta ala egin bear ba'gendu ere ¿zer?

Ume guziak bere amagana bezela, beartuak gaude euzkotar oro gure aberiagana, emakumeak nola giza-semeak, eta berau bizi dedintzat alegindu bear gera.

Eta ez bakañik alegindu beroni osasungari zaizkion geure gauz oro aldeztan, baita geure Aberi au, geure Euzkadi maite-maite au nor dan agertzen; beronen eskubideak aldeztan; eta gaur lotua daukan ankeñaren eskuetatik azkatzen.

Onetarako edonun gure alegiñak: sendian, etxian, txaidian, gure batzokietan, alde gustietan; ba ez degu geure bearkunak utsi beariñk geure aberi-aldez lan egiteko. Eta berau bere semien bezala, bere alabaen bear da; eta semeak alegintzen diran bezala alabak ere alegindu bear gera.

Eta lenago ere esan dizut, idazki aben lenengo-

etan, Jel aldeaz azaltzen geranon egiñenak bildurtzen dituzten emakume oyei, gure agertze onek ikaratzen ditun «makal» oyei jaramon gutxi; ba pizka bat begitzen ba'diezu laister ikusiko dezu, bildurtu bear luketen beste gauza askotzaz ez dirala bildurtzen; eta geu baño emakume eratsuago eta onago azaldu-nai ori, ez dutela, gure aberiari dioten maitasunik-ezaren, edo ta baita amoruaren estalgañi bat besterik.

Edonun azaldu euzkotarñak gerala eta gure Aberia Euzkadi dala; eta Euzkadi, Arana Goiri'tar Sabin'ak irakatsi zigun bezela, Jaungoikua'rentzat nai degula.

Tene.



OLERKIAK



AMONA



kusten dezu, seaska alboan
nola dagoan eserita,
bere oñakin darabilala
seaska ori, «dan-ba, dan-ba»?

Amona da ba; ta amona baita
biloba txikiaren poza;
maite-maiterik demayolako
jostalutzat bere biotza.

Aurtxo txikiak ez daki izketan,
bai baña amonagan agintzen,
amon xamuñak bai dakilako
aurtxoak ez dasana ulertzen;
eta osera, ez dakilako
ulertzen dionik ukatzen.

Txoro egiñik, amonatxuak
begitzen dio bilobari;
ba aur txiki oren iriparia
du, bere neke oron sari,
bizi-bidean arkitu ditun
samin guztien aztugari,
ta urtien otzaz dardaizkan daukan
biotz aularen berogari.

Bizi-bideko aldatz luzean
arki du ainbat elofi;
gaste sasoyan, udara-aldian,
itxaropenez orlegi;
jai! zartzaroan, negu beltzean
osto gabe, soil, mingari;
jeta gaxoak ez du bidean
arantza baizik, euskari!

Arantzak baña, ez du amona
mindu bakañik egiten,
baita-ere dizka negu-ostean
lore txuriak eskeintzen.
Oñela baita bizi-bidean
naiz neke miñak ugari,
biloba txiki gogo-zuri bat
du, zartzaroan pozkari.

Oñengatik ba seaska alboan
amon xamuña esertzen da;
eta maitari seaska ori
erabiltzen du «dan-ba, dan-ba».



E. DARE

ELURTZA

(*Abestia*)



lu' txuriyak ditu
mendiyak estaldu
ain edera dalarik
baita itunez bildu.

Artzai-neskatxari
txit gogoa ilundu
¡Ai ez du txoritxuak
goizian abestu!

Umezurtza negaiez,
txoriya dardaizka,
loretxua igarturik,
ardiya mañoizka;
mendi eta zelayak
eluez jantzita

neri iduritzen zaizkit
iloyalz jantzita.

¿Nun zera eguzkiya....?

¿Nun zera, nun zera....?

Atoz dizdiatzale
elurak kentzera,
lirik dagon lurari
bizitz-ematera,
mendi baso zelayak
alavez janztera.



ETXER

MUXUA



egi beltz ayek nigan jarita
begitu zidan itun, itun;
ta umetxuaren begitze arek
jail biotz-beraz jari nindun.

Begiyak zitun bezin beltza zan
ayek azaltzen zuten miña;
miñaz gañera, maitasunaren
egari bizi ase-eziña.

Eta gelditu nintzan erukiz
umetxuari galde egiten;
ene gaxuak Jain umea zan!
izer zuan ere, ez, etzekien!

Bere adimen esnatu-gea
etzan oraïndik konturatzen,
ludi otz ontan biotza dala
maitasun beroz alikatzen.

Eta berea bero ori gabe
zegola baita otzak lltzen;
¡bañan gaxoak etzekiena
begiyak zuten adirazten!

Umezurtza zan, neskatx gaxoa,
erukariak ¡amarik ez!
¡ai! ¿nola ez ba bere biotza
maitasun gabe, otzak, miñez?

Amarik ez ta, ¿nork gaxo ura
gozatu zeiken maite beroz?
maitasun gabe ¿nork bere ituna
kenduko zion musu gozoz?

Eta erukiz nere biotza
igitu zuan umezurtzak...
ta eman nion bere bekoki
aratz garbian, muxutxu bat.

Muxu beroa, naiz ta umetxo
erugabeak ulertu ez;
¡ai! baña bere biotz txikiak
nabaitu zuan, esker onez.

Eta gaxoak begitu zidan,
len bezela ez, itun, itun;
ta bai alaitsu, pozez bezela,
maite-maiterik... gozo... bigun...



LO GOZOA



o dago aña bere seaskan
izaña baño ederago,
amatxok gozo abestu dío:


«¡ene maitia! lo lo, lolol!»
Lo dago aña, ta egiten du
iripare guztiz gozoro,
gizaxotxua gotzontxuakin
pozetan amesetan dago.

Lo dago aña..... bere ondoan
amatxo baita eserita,
samurtasun fxit aundiarekin
berari begira-begira;
zentzumen oro eta biotza
aurtxuagan ditu ipiñita
bere semeaz oldozten ama
beste gauz orotzaz aitzu da.

Lo dago aua, ¡ai lo gozoa!
gotzontxuakin amesetan;
ama maitiak zintzo gorderik
ezerk ere esnatu ez dezan.....

.....
.....

¡Ai lo gozoa zetorkidana
amaren abes biguñakin....!
¡Ai lo artatik esnatu ba'nintz
an donokiyen gotzonakin!



1912

NERE ESNATZEA



Nork esan du, oñen zitalki,
Euzkadi nerea ez dala?
Nork esan du ain asmo gaiztoz
Euzkadi'rena ez naizela?

Nere biotza
lotan zegoan,
nork esnaturik
etzeukala;
bere baruko
suaren bear
Euzkadi zanik
etzekila.

Lotan zegoan
nere biotza,
miñez zegola
Aberia.....

lo zegolako
etzun nabaitzen
ain gaxoaren
min aundia...

Baña Euzkadi'k
bai zuan balta
esna zegoan
Seme ona:
ta bere didar
sendo-sendoa
eldu zan zoli
neregana.

Nor da, erantzun
nion bat batez,
nere maitasun
bear dana....?
Nere su epel
au berogari
bear duana:
¿nor da? nor da?

¡Eta Sabin'en
gogo zindoak
azaldu zidan
Aberia!

.....
¡Ta aberiaren
gogoak balta

Sabin'ek zion
nai-aundia!

.

¡Ordutik maite
det aberia;
eta alegintzen
naiz beretzat,
Arana Goiri'k
zion nai ura
arturik neure
eredutzat.



ARANTZALIEN ABESTIA



gun sentiyan
kai muturian
ipar me-meyak
nere mosua

ikutzen du;
berakin maite
biotz nereak
zure leyora
agur samura
bidaltzen du.
Eguerdiyan
itxas- gañian
urak legunki
nere ontziya
jeikitzen du;
bertan zabuka
zeutzaz oldozten

¡ai! maitasunak
nere biotza
txoratzen du.

Aratsaldian
igesi duan
euzki gorriyak
nere biotza
ituntzen du;
baña kayara
artzen det eta
zure begiyen
argi ederak
alaitzen du.

Itxasua ainbat
zabal sakon dan
maitasuna det
biotzian;
beronen jabe
egin zihan zu
kayan lenengoz
ikustian.

Ordu ezkerro
maite nerea
gozoro zaitut
nik gogoan
gabaz, egunez,
garai orotan;
naiz legorñan
ta itxasoan,

Eta goizero
Neskutz Miren'i
eskatzen diot
otoi beroz,
lagun deigula
ainbat lasteren
elkar gaitez
maitez biok.



ETIWE

ILTEGIAN




endiyen barenean
antxen landa artean,
iltegi bakartxo bat

dago nere erian.
Bertan toki txiki bat
zeña obi bat dan...
onen aurian oi det
malkoa begiyan.

Maite-maiteak nitun
izaki gaxoak
antxen gordeak ditu
toki txikitxo ark.
Nola ba ez ixuri
nik bertan malkoak?
¡Ai! ¡ez daki aizuntzen
biotz saminduak!

Baña iltegi ortan da
kurutze bat zutik,
ta kurutzean Josu
besoak zabalik;
naiz ta begiyak euki
mal'koz lañoturik
mañien poza dakust
kurutze artan nik.

Ta itxaropen gozoak
pozten dit biotza,
pozkarri azalduaz
betiko bizitza.
Oñengatikan nere
malkuen ziyua
otoi biurtu eta
donokira dua.



GORUNTZ BEGIRA



zkarbi izañez apain jantziya
gau eder baten ikusi nuan;
berai begira, berai begira,
orduak gozo eman nituan.

Ordutik, ames-det donokia.....
jega-yoranak ditut gogoan!


Begitzen ba'det ongi ludira
loya besterik ez det ikusten...
berai begira, berai begira
biotz ta gogo zaizkit nekatzen
jeta begiyak nik donokira,
atseden bila, ditut jasotzen!

Ozkarbi izañez apain jantziya:
jzuri begira txoratu nintzan!
¿Ze arki nuan, txoragaría,
ze arki nuan zure dizdiran?

¿ze esan ziñazun zuk, ozkarbia,
neri gogora gau eder artan?

lñola-re zan, or donokian
Urtzik demaigun poz-zoriona,
Bere maitetzan oro-aldiyan
izangri duan gentz atsedena,
gogoari zuk zure dizdiran
gau eder artan azal-ziñona.

Ordutik beintzat neutzat ludiya
ezezgarri da oso-osoan;
txit arkitzen det loi, ogendiya,
kaltea baño ez du beragan;
Eta nik ames det donokia....
jega-yoranak ditut gogoan!



ETXRE

BIOTZA MAITEKOR



uzkia gori, geldi-geldika
itxas-barura sartzen zijoan...
ta zuaitzeik txio-txioka
txoriak itun agurizen zuan.

Une txit xamuña. Zelayan jarrita,
bakañik nengoan; ixil biotz-bera...
ta izadiak zidan, Urtzik ala nai-ta,
orduán gozoro mintzatzen gogora.

¡Goiko Jauna dan andi-andia!
(maitez sutuaz oldoztu nuan)
¡Eta beretzat, biotz gurea,
zer gauz edera egiñik duan!

Oldozkor... oldozkor... an begiak topo
egin zuten zerbait; eta urbil nigandik,
ara... ustekabian, idatzi bat antxen
zesala «Niregan ezta maitasunik»

¡Ariña! orduan nesan;
¿Nor da ludyen maitasun gabe?
Ez gera orok andre ta gizon,
biotz maitekor banaren jabe?

Seaskatik aurak dio amatxori
iripare maitez gozoro egiten;
jayo dan orduko biotz txiki ari
maitasunak taupa dio arazitzen.

Maitez asetzen du, bai gasteak
Biotz goriko bere eña;
maitez arintzen du agureak
bere epelean daman nekea.

Onbidea maite notin jainkotiak,
eta galbidea baita txar-gaiztoak;
jakitun, ez jakin, aundi ta txikiak,
beti zerbañ maite mota guzikoak.

Besterenak lez, astertu nuan
neukin damaten biotz au ere;
ta ezin dala bizi zesaidan,
aratz guzia maitetu gabe.

Nor ote leike ba maitasun gabea?
txit urdurituta onla galdeturik,
begiratu nuan..... jeta zan aña!
onek zesan: «Nigan ez da maitasunik».

¡Aña!.. ¡Aña!.. Norbaitek zuan
ofela idatzi bere gañian...
¡Ai! idazkun ori (oldoztu nuan)
leike añaian...; jez biotzian!



ETAIL

ARANTZALIAREN OTOYA



gun beriak itxas zabala
margo beriz azaltzean,
ta Andutz-mendija oni begira
eguzkiz janzen danean,

ta zuaztitik txori-abesak
beren lotatik itxartu,
baita artzai-mutil itziartarak
artaldea mendiratu,
Deba'ren auzer itxas barean
txalopa dager geldirik,
nola umetxo bere amaren
magalean lo-arturik.

Geldi-geldirik, txalopatxua
ur azal ostin garbian,
gora dijoan eguzkiaren
izpi dizdikor artean,

oar geltsu ta gozatsua da
ikuskitxun ederean.....
edo lerotxo beltz, ikurkoia
eleski zoragarian.

Begira ditu Arno ta Andutz,
baita inguruko muñatzak;
zelai lilitsu, sagasti eder,
solo, basetxe ta landak;
begira ditu zuaitzetatik
txorotxioka txoriak;
begira ditu pozaren-pozez
donoki goitik gotzonak,
dantzubelako txalopatxotik
igo dan otoi xamur bat:
Ene Itziar'ko ama biguna,
(dio arantzale onak)
Goiz ontan Zeutzat agur gozoa
dauka nere maitasunak,
ainbat zorion demayo bada
Zugana'ko itxaropenak.

Egun beria Jauna'k maitari
argitutzeaz bafian
zure txadon-oi Andutz-oñean
ager-zait begi-aurean;
gogoaz zakuts Neskuts edera,
Itziar'ko bakaulkian,
bitartekotzak jartzen zerala
Jainko ta neure artean.

Ořengatikan itxaropenaz
itxas-ontatik dei-zaitut;
nere bizia, ta uste nerea,
¡Miren! ¡Zugan jartzen ditut!
Eta nere gain jeikiko ba'lituz
ekaitz gogor ixukořa,
lagun eidazu ¡O Ama gozo
itxasoko Izar Edeřa!
deiturik maitez Zeure altzoko
kai eskier ořetara.

.....
.....

Ařantzaleak bere otoa,
amaitutzeaz batera
irabioka duaz gotzonak,
an, Miren'i aurkeztera...
Ama gozoak ontzat arturik
otoya, seme onari,
Itziar-goyan eskii zaigu
itxas-gixonen Zaindari.



UDAZKEN - ALA



Juan zaigu udara, jua da igesi
eramanik bere alaitasuna;
jua zaigu udara, ta jua dala
mendi ta ibařetan txit ezagun da.

Juan zaigu udara ta ixildu dira
txoritxo abeslariak,
ez dira entzuten gure mendian
beren abesti alayak.
A, bai itunak txori abesti gabe
baso bakar urutiak
bertan oyartzun egingo ez ba'leu
euzkuen poz-irřntziak.

Juan zaigu udara, eta berakin
euzkidun egun luzeak,

oyekin baita jua dirare
artzayaren poz-alayak.
A, bai gogora onentzat neguan
mendi eluzez jantzia,
bertan ez baleuka txabola, eta
txabolan bere maitea.

Juan zaigu udara, eta alegetu
semetxo jolas-zaleak,
zelai lilitsua artu dualako
guzia zingira loyak.
A, bai estua abentzat sukaldea,
bai iluntze gogaikariak,
su-ondora aitona deitzen ez baleu
entzutera bere ipuyak.

Amaitu dira, bai, neska-mutilen
itur-ondoko egonak,
gogorki ditu ba ortik bidaldu
euriyak edo bisutzak.
A, bai luze itunak maitalientzat
neguko gau ilun baltz-baltzak
ames egitera deitzen ez baleu
sukalde zareko suak.

Juan zaizkigu baita udararekin
goiz argi ta aize legunak
ez dute orain, ez, ainbat atsegin
eskeintzen mendi tontorak.
A, bai orna beltz aztunak neguan
basetxe txiro txikiak,

sendi euzkoa lotuko ez ba'leu
bera jayo zan mendiyak.

Juan zaigu udara, juan da igesi
eramanik bere alaitasuna;
juan zaigu udara, ta juan dala
mendi ta ibaretan txit ezagun da.



MAITASUN EDERAREN AMARI



eñeri, Miren, Zuri izan ezik,
Abes nerea zuzendu gaur nik
Pozez beterik?

Zuretzat ezta, zeñentzat Ama
Nere abesti eztiitsuena

Ta samuřena?

Nola besteri neike abestu
Eder-ederen egin ba-zaitu
Urtzik, maitez, Zu?

Zerade Miren, bigun, ezta,
Eskar txit deunez apain jantzia,

Zu jainkotia;

Oskarbi eder, euzki argia,


Neskutz txit aratz garbi-garbia,
Berdin gabia;
Zu, Andere aundi ta Bakalduna,
Goi-baratzako Lore bikaña,
Gelgariena.

Donoki poza, lili goña,
Izar txit argi dizditzalia,
Uso txuria;
Urtzi-mailia ta Ama laztana
Erbestetuen itxaropena
Ta zoriona;
Zeñeri bada, Zuri izan ezik,
Abes nerea zuzendu gaur nik,
Pozez beterik?

Bañan, donoki-edertasuna:
Nik, naizen onek al'nezakena
Zuretat, zer da?
Ezerez onek, ze esango dizu?
Zu-edertasuna nola edestu,
Nola, ba, abestu?
Otsein gaxuak Bakaldunari,
Itzal itunak Eguzkiari
Zer eman legi?

Ene Andera: nere eziñian
Auspeztutzen naiz Zure aurian,
¡Ai! zerbait nayan!
Ta zeradenez Neskutz laztana

Ama Maitasun Edeñarena
Deitu zugana;
Zure altsuan ikasi deitan
Dagokizun lez Zuri jarduten,
¡Maitez abesten!



NERE LEYUA



ere gelako leyotik
dager ortze zati bat,
berari zor dizkat nere

oldozkun gozoenak.
Naiz euzkiz jantzita egon,
naiz odeyez izukor,
naiz ilargi geltsuz edo
naiz izarez dizdikor,
mintzo gozoz poztutzen du
nere gogo gaxua.....
jeta bere mintzo eske
zabalizen det leyua!



IKAZKIN LIĪURATUA

(*Abestia*)



eure txondora utzita
ituřira nintzan,
sula betetzen zegon
neskatxa bat bertan;

ark eman ziran ura
řai ze gozoa zan!
geroztik ain gozorik
ez det beriz edan!

Ikazkiņa naizenez
ta ikaskintzan beti,
ain ume ederik iņoiz
ez nuan ikusi;
ořela bere itxurak,
eder, zoragari,
gentza lapurtu zion

nere biotzari.

Lagundu nion sula
burura jasotzen,
bañan ezin ausartu
etxera laguntzen;
nayaratik lagundu,
ez dakit zer nuen
jñola asmatu ezin
baimenik eskatzen.



ITZIARKO AMA NESKUTZA



ntxen, Andutz'en magalean exe-
[rita,
itxas - aizeak laztantzen duala
[gozo,
sartuaz duan eguzkiari begira,
Itziar'en txadon antziñako bat dago.

Bere maitasun ezti gozoa azaltzeko,
jañi du bertan Neskutz Amak bakaulkia,
eta asaba zañen zinismenean sendo,
dijoazkio jaupari eta eria.

Eta zelaiko lilien likurt ezti
aize legunak zabaltzen duan antzera,
zabaltzen du maitari eskar jainkotia
itxaropendun euzkuen gogoetara.



ANAI BURUÑURDUNA



uru-oñak goñirik, eun-zakaña soñian,
 Sorbaldan bide-zorua, ta itsuta gerian,
 Anai buruñurdun bat etofi zait eskian

Apal eta txiro, Jainkoaren izenian,
 Donearen iripaña du ezpañian,
 Ta barengo gentza igartzen zayo bekokian,
 Kisto aintzartzeko gogoz, da txiro ludiyan,
 Beraz aberats izatearen donokian.

Alako eratasun aundiyaz zait aurkeztu,
 Ain da apala lekaide jainkotiar txiroa,
 Nun bera ikustian ¡ai! neuregan det oldoztu;
 Eta burbei luzatu diot nere ukartxua...
 Ba buruñurdunak bere apaltasunez du
 Apal-erazotu nere gogo arotua.



AMA



zein mutiltxo polita
amatxok daukana!..
Ta nolako lo edera
egingo duana!

.....

Ea ba, maitia... txasta!
seaska epelean...
orain estali... ¡ederki!
Ara ama zure urean.

.....

Bañan... begi argiak
maite, begitzen nazu!
onela... itxi leyua ta
laixter lo egingo-zu

.....

Negar?... Ez dezu nai maite
amatxok gela iluntzerik?..

Ora ba leyua iriki!
¡Joan «mumua» emendik!
Ea polita, egin lo;
ama ementxe daukazu,
eta zuk lo egin daizun
berak abestuko dizu:
¡lo lo! maitetxua lo, lo!

.
.

Nekez bañan, loak artu du
nere biotzeko puxka;
orain nuan ixil-ixilik
neure lanak egitera.

.
.

Ai bañan... nork utzi berau?...
Nola alde beronengandik?...
Gizajoa... lo dago ta
¡jene! iripare egiten dit!

.
.

Tira; lazian bat emanda
nuan nere lanetara;
Ez...! obeko det ez eman.
bestela esnatuko da!

.
.

Leyua... onela... itxita...
nuan bai, nuan emendik...
bañan... ¡ze esnatu bear det
lazian bat emanatik!

Poliki... poliki, ba..... ip...at
¡Ai!... Esnatu, zu, polita?
Ez laztana! Egin, lo, lo,
amatxok abestuko-ta:
¡lo, lo! maitetxua, lo, lo!



E. 1921

BEREROSLEAREN OÑETAN



urutz gogoñian zintzilik
Josu nerea zaude Zu,
Emen garbayez auzpezturik
Zeure oñetan naukazu.

¡Neure ogena
Azketsi Jauna!
¡Aren erukiz ar nazu!
Zuk nigatik
Ain mañterik
Urtzi, bizia eman dezu
Ai ene Jabea
Zure oñazea
Artu dagidala eidazu.
Esker onez
Zure mañtez
Biotza irazeki zadazu,
Eta Zu il zeran
Gurutz ortan
Ni bizi nadila egizu.



ETARÉ

NESKUTZ MINDUARI



z dakit Ama maite, zer duten
Zure begi negartuak,
Oyen begira, zaizkit legortzen
Nerietako malkuak;

Ain da sakona zure eder oyek
Azaltzen didaten miña,
Beren aurrean beti ikusten det
Neurea guztiz ariña.

Detan nekea eramateko
Arkitzen banaiz aul ta ila,
Nik begitzen det indar artzeko
Zure arpegi zurbila;
Apal ta maitez, Ama nerea,
Zuri begitu ezkeru,
Nork ez du bere gogo-nekea
Eramakor arkituko?

Begitzen ditut miñaren miñez
Itxitako zure ezpañak,
ta amaitzen dira, beti negarez
Nereak dituzten alak;
Erüge orek ixil damazu
¡Ai! nere oben-kaltea,
Ta nik alaka, orla famaltsu,
Ain dagokidan nekea?

Ez det nai, Ama Neskutz mindua,
Negar nere miñagatik,
Nai det garbaiztu nere gogoa
Zeutzaz eruki arturik;
Artu nazazu, ezpatak gogor
Zulatu dun Biotz ortan,
Bertan nekea beti jasankor
Nereak arkitu dezan.



ETXERE

GOGO-NEGAÑA



gogo ilun ta biotza miñez,
Lirtzi nerea, emen naukazu;
Beti alaka, beti zotiñez,

Neke gogoña zait ba galendu;
Ta Zuri ezik, nik nori deitu?

Biotz-atean maitasun-eske
Somatu zaitut ainbat alditan,
Eta ero onek, iriki gabe
Bidaldu zaitut neure kaltean.
¡Jainko aundiya zer egin detan!

Bañan gogoak, Zure deyaren
Gozotasuna ezin du aztu;
Ain dei biguñik ez du entzuten,
Zu lez maiterik arkitzen ez du,
¡Eta gaur berak bilatzen zaitu!

Ludiko poza, Zu gabe, Jauna,
Ez da besterik, neke latz-latza,
Atsege lañi, txit zama aztuna,
Zoritxar gogor ta eriotza;
¡Ez oñen bila nere biotza!

Gaxua, maitez Zeutzat ein dezu,
Ta Zeutzaz ezik ¡ai! ezin da ase;
Dena du gutxi Zu ez bazaitu,
Ezin da bizi Zure poz gabe;
¡Beretzaz, Urtzi, eruki zaitte!

Zure atean maitasun-eske
Jainko laztana gaur ni naukazu;
Ez utzi añen iriki gabe,
Nere obenaz ez Zu oroitu,
¡Nik Zu bezela ez Zuk ni aztu!



GALDEA TA ERANTZUNA



xoritxo abeslari
papar goñiduna
or goiko zuaiztian

abesten dezuna:
zure abes gozoaz
¿zer esaten dezu?
Dozak edo samiñak
azaltzen dituzu?

Ez dakit nik zer duan
zure abes oñek,
beste bat ain gozorik
iñoiz entzun ez det;
eia txoro-txioka
ereski zolitar.

txoraturik naukazu
atsegin ezitan.
Gogo urdurituta
iñoiz ez bezela,
eta yoran beriak
nabaitzen ditula;
baita biotza maitez
igitua sendo,
arkitzeraño bere
tokia txikitxo;
ba zure abestia
izanik biguna
da, bizi indaréz
igitu nabena.
«Esan, ene txoritxo
papar goriduna:
¿zer da or zuaiztian
abesten dezuna?»

Gogo-atsegin aratz
pozkarrien bila,
etori naiz yoranez
uritik mendira.
Ara: mendiak tontor
ta ortzea ikutzen.....
ara: landa ederak
margoa eskeintzen.....
Ixaso zabalean
ur-azal oztiña,
ozkarbi edefaren

antzikur egiña...
Ikuskizunak baña
alpeñikan[ñai du
begietatik ziar
gogoraño sartu,
zure abes gozoak
indar geyago du
ta nere oararen
jabe egin zera zu.
«Esan, ene txoritxo
papar goriduna:
¿zer da or zuaiztian
abesten dezuna?»

Edera da mendiak
duan olerkia
musu batez Goikoak
legun ezaria;
eta nola zeran zu
txoritxo maitea,
mendi olerki oren
zatitxo biziá,
zure abestia da
esnatu duana
nere gogoan, zerbait...
len lo zegoena,
ta zeu bezela abesten
ipiñi nabena.
«Esan, ene txoritxo
papar goriduna

¿zer da or zuaiztian
abesten dezuna?»

Izan liteke zure
biotz txiki ořek
nabaitzea maitasun
aundi bat; nola ez?
Ta nola maitasunak
bere ondorea
agitz izan oi duan
min ta naigabea,
izan liteke baita,
txoritxo nerea,
neretzat ain gozo dan
zure abestia,
daukazun samin ořen
itunez betea.
Ta biozkada orok
igitzen nabenez
bein da beřiro nazu
zure ořen galdez:
«Eсан, ene txoritxo
papar goriduna:
¿zer da or zuaiztian
abesten dezuna?»

Ba, ain eder-edeřa dan
ludi zital ontan,
oraindaño bezela
diran bitartean

txori abeslariak
zuaizti ixiletan,
ta biotz maitariak
edozein tokitan;
izango dira baita
ni orain bezela
txori-abes bigun bat
gozoro entzunda,
geldituko diranak
erdi txoratuta,
ta nik zuri bezela
berari galdezka:
«Esan ene txoritxo
abes gozoduna:
¿zer da zuk polit oñek
abesten dezuna?»

Baña baita ludiyan
geran bitartean
Goikoa dakusgunak
gauza guztietan;
nik zurea bezela
iñoiz entzutean
txori-abes gozo-bat
edozein tokitan,
eta galdezka jafi
zer abesten duan;
galdeak erantzuna
berea izango du,
ba gure zinizmenak

au emango digu:
«Ara, or goiko txori
abes gozoduna
zintzo goraltzen ai da
bere Egile ona»



AURTXUAREN IRIPARÍA

(*Abestia*)



iriparetxo, iriparetxo
aurtxuarena;
iriparetxo, iriparetxo
maitasun-eske zaudena:
Eder-edeña
zerade,
aratz, xamura
baita-re;
egun-sentia
bezin alaya,
gotzontxuaren
ikusgaría,
ainbat malkoen
legortzalia.

Iriparetxo, iriparetxo
aurtxuarena,
Ama maitiaren zorioga,

Zoragaría
iriparíá
zera zu
ta iriparé arazitzen dezu.



AMARI



gan biotza doakit
Zugana, Miren Neskutza;
Zeralako eder utza

Ez du nai zurekin baizik.
Ama gozoa zaitut nik,
Nere maite, nere poza;
Zuri agur egin nairik
Artzen det gaur idazkortza.

Gogoan emanik muxu
Ama samuía bezela,
Zure Alaben batzara
Miren, ninduzun bein deitu.
Oyekin nintzan ni batu;

Ordutik nazu Alaba;
Naizena zurea nazu;
Zerana nereaz zera.

Gozoro-gozoro beti
Zaukat nik, Ama, gogoan;
Ta biotz barú-barúan,
Zuk ez nazu ba nai utzi.
Inoiz zugandik igesi
Ero ba'nua..... orduan,
Ama zera-ta, maitari
Lotzen nazu zeuk altsuan.

Ta ainbat galzori artean
Bildurik gabe naiz bizi,
Dakidalako txit ongi
Naukazula magalean.
Ama: zure babesean
Nai nuke iraun beti-beti,
Zukin, Urtzik dei-arteon,
Euki nazazu maitari.

Ludiyen bizi nadila
Zure maitasuna aintzaltzen,
Zure edertasuna abesten
Goyan gotzonak bezela.
Eder-edeña Zu zera,
Loirik zugar ez da arkitzen.....
¡Dei zadazu donokira,
Ikus-zaitzadan len-bai-len!

Bitartean, Neskutz Ama,
Agur dagitzut biotzez;
Goi-beyetan dautzut pozez
Sortzez garbia zerala.
¡Agur, oi Miren Edeña,
Jaunak jantzia eskarez!
¡Ez aitzu ar-ninduzula
maite-muxu baten bidez!

ARKIBIDEA

Opalitza	5
Euskeldun emakumeai eta irakurle oroi	7

Idazkiak:

Lenengoa	9
Bigarrena	12
Irugarrena	15
Laugarrena	18
Bosgarrena	22
Seigarrena	25
Saspigarrena	28
Zortzigarrena	31
Bederatzigarrena	34
Amaigarrena	38
Amaikagarrena	40
Amabigarrena	44
Amairugarrena	46
Amalaugarrena	50
Amabosgarrena	52
Amaseigarrena	56
Amasaspigarrena	59
Amazortzigarrena	62
Emeretzigarrena	66

Olerkiak:

Amona	71
Elurtza	73

Muxua	75
Lo gozoa	77
Nere esnatzea	79
Arantzalien abestia	82
Iltegian	85
Arantzaliaren otoa	87
Biotza maitekor	89
Goruntz begira	91
Udazken-ala	94
Maitasun ederearen Amari	97
Nere leyua	100
Ikazkin liluratua	101
Itziarko Ama Neskutza	103
Anai buruñurduna	104
Ama	105
Beñeroslearen oñetan	108
Neskutz minduari	109
Gogo negaia	111
Galdea ta erantzuna	113
Aurtxuaren ifipañia	119
Amari	121

